
SF78
SF
78
gogoan!



78KO SANFERMINEN 40. URTEMUGA
INPUNITATEARI STOP

01 Txostena (2017ko urrian)

40° ANIVERSARIO DE SANFERMINES 78
STOP IMPUNIDAD

Dosier 01 (octubre de 2017)



Memoria ezarritako boterearen aurkako borroka eta konfrontazio esparrua da. 2018ko uztailaren 8an 40 urte beteko dira gertaera haiek, Iruñea hiriaren eta, hortaz, Nafarroa osoaren errealitatea aldarazi zuten gertaerak izan zirenetik.

Hiri osoak jaso zuen erasoa. Eraso horren testuinguruak trantsizioan kokatzen gaitu: hastapenetatik erregimen diktatorial genozida sortu zuen matxinatze militar eta egoera politiko berriaren arteko trantsizioan. Alabaina, egoera politiko berria ez da purga galbahetik pasatu, ez du aurreko errejimenarekiko lotura moztu. Aitzitik, haren beraren funtsa mantendu du.

Testuinguru sozial eta politiko horretan bilatu behar dugu gure hiriak jasan zuen erasoaren azalpena, bai eta berrogei urte iragan ondoren harengatik inolako ordaintza politiko, sozial edo juridikorik jaso ez izanaren arrazoiak ere. Inpunitatea bada, ez daiteke demokraziarik izan!

1978ko uztailaren memoria bizi eta demokratikoaren berreraikitzeak gatazkatsua behar du orainarekin eta gaur egun borrokan aritzen diren pertsonekin jarraipen hariak ezartzen saiatu behar du. Ezin dugu iraganari so egin orainean abiada hartu gabe. Hain zuzen, orainak bakarrik irekitzen ahal du iragana.

Sanfermines78 gogoan! kolektiboak zenbait proposamen aurkeztu nahi ditu berrogei urte hauetarako, keinu instituzionaletik haratago doazenak, nahiz eta hura ere beharrezkoa izan, nagusiki, 1978an Peñen Batzordeak egin zuen bezala, behetik borroken orainarekin bestelako jarraitutasunak ezartzea bilatuko dutenak.

DOSIER honetan berrogei urte hauetan ahanzturaren eta inpunitatearen aurka herri erresistentzia etengabe eta nekaezina azaldu duten ekimenetako batzuk gogoratzen dira eta EGIA, JUSTIZIA eta ORDAINA lortzeko jauzi kualitatiboa ematera laguntzen ahal duten beste ekimen batzuk eskaintzen dira.

2017ko iraila

SANFERMINES 78 GOGOAN! HERRI EKIMENA

La memoria es un espacio de tensión constante entre la realidad social y el poder establecido. El próximo 8 de julio de 2018 se cumplirán cuarenta años de unos sucesos que influyeron de forma importante en el curso de la historia de la ciudad de Iruñea y, por ende, de toda Nafarroa.

La ciudad entera fue agredida y el contexto de tal agresión nos sitúa en plena Transición entre un levantamiento militar que dio origen a un régimen dictatorial y genocida desde sus mismos inicios y uno nuevo que no pasó por el tamiz de la depuración ni cortó amarras con el anterior, sino que preservó lo fundamental de aquel.

Es en este contexto político y social en donde hay que buscar la explicación, tanto del ataque que sufrió nuestra ciudad, como las razones por las que cuarenta años después no ha habido ninguna reparación política, social o jurídica de aquello. ¡Con impunidad no puede haber democracia!

La reconstrucción de una memoria viva y democrática de julio de 1978 es así conflictiva con el presente y debe tratar de establecer hilos de continuidad con las personas que luchan hoy en día por muchas de las cosas que entonces también su luchaba. No podemos volver la mirada al pasado sin tomar impulso en el presente. De hecho, solo el presente puede abrir el pasado.

El colectivo Sanfermines 78 gogoan! quiere presentar en este cuarenta aniversario toda una serie de iniciativas y propuestas que van más allá del reconocimiento institucional –que también es necesario–, y busquen establecer desde abajo, tal y como lo hizo la Comisión de Peñas en 1978, una continuidad con el actual presente.

En el presente DOSSIER, además de recoger y analizar los sucesos ocurridos en los sanfermines de 1978, se muestran también algunas de las iniciativas que han jalonado una constante y tenaz resistencia popular al olvido y a la impunidad durante estos cuarenta años y se ofrecen propuestas que pueden ayudar a dar un salto cualitativo en la consecución de la VERDAD, la JUSTICIA y la REPARACIÓN.

Septiembre de 2017

INICIATIVA POPULAR SANFERMINES 78 GOGOAN!



Miren Díaz

KANPAINA

LA CAMPAÑA

Jose Luis Mayor



40. URTEURRENAREN KANPAINA

Isiltasun, faltsukeria eta inpunitatez beteriko 40 urte iragan dira/ditugu dagoeneko. Dirudienez, 1978ko uztailaren 8an, zezen plazan, hamar mila lagun baino gehiagok ikusi zuten aldez aurretik pentsaturiko eta bereizkuntzarik gabeko eraso erailea ez omen zen gertatu.

Emandako epaiak ontzat eman zuen egun hartan harmaila batean zegoen liskar minoritarioa eteteko modurik onena zela plazako hondarrean dozenaka polizia sartzea, han zeuden hamaika lagun kolpatzeko. Ondoren, dena nahaste polizialak, emandako aginduen gaizki ulertzeak, memoriaren hutsak, gehiegikeria anonimoak izan ziren. Ondorioa: sumarioa artxibatu zuten epaiketa izatea ere ahalbidetu gabe.

Antzeko zerbait gertatu zen Germanen erailketa eta karriketako razziekin. Polizia batzuek pistola eta cetmekin hamaika bala bota zituzten Orreaga etorbidean. Haietako batek German hil zuen. Nork egin zuen tiro? Epaileak adierazi zuen ezina zela jakitea nor zen egilea, ezta hori egiteko agindua ote zuen. Eta horren arrazoibide burutsu egin ondoren, sumarioa artxibatzeko autoan bere sinadura

justiziazalea jarri eta atseden hartu zuen. Ez zen ezta polizia bakar bat ere aulkian eseri. Berriro betikoa. Inpunitate osoa.

36ko kolpe militar-faxistaz geroztik, isiltasuna, gezurra eta inpunitatea etengabekoak izan dira Diktadura frankistak eragindako erailketa, desagertze, tortura, ninien lapurretetan... Memoria talde nekaezinek Nafarroan egindako lanek eta Iruñeko eta Sartagudako udalek jarritako kereilek erakusten dituzte jardun horiek. Data haietatik haratago, azken berrogei urteotan ere ikasi dugu bortizkeria polizialak eragindako heriotzen inguruan egondako inpunitatea, bai eta salatutako tratu txarrak eta tortura ugariak ere, inoiz ez baitira ikerturik izan.

Baina gauzak aldatzen ari dira. Memoria historikoaren mugimendu indartsua eta udal, parlamentu eta gobernu autonomiko batzuek (egun Nafarroa eredu da horretan) arrakala irekitzen ari dira giza eskubideen urratze horientzat guztientzat, Egia, Justizia eta Ordaina lor daitezen.

40. urtemugan, Sanfermines 78 Gogoan! herri ekimenaren kanpainak aurrekoan sakondu nahi du. Bi zutabe handi ditu oinarri. Alde batetik, jarduera multzo bat sustatzea, isiltasun, gezur eta baztertzearen 40 urteok gure jendartean sortu duten Egiaren hutsunea bete dezaten. Bestetik, gure erakundeei galdatzea, adierazpen eta formalitateez haratago –beti beharrezkoak eta txalogarriak izanik ere– gertaera haien inguruko Egia berreskuratzeko konpromisoaren bidean aurrera egin dezaten, eta hori oinarri, Justizia eta Ordaina epe laburrean errealitate bihur daitezen.

Sentsibilizaziorako gure lan hau ahalik eta sektore sozial gehienetara iristea nahi dugu. Horretarako, aski lehenago hasita, 2017ko azarotik 2018ko Sanferminetara, mota guztietako jarduerak sustatuko ditugu zenbait eremutan: zinema zikloa, antzerki lana, bertsolaritza, argazki erakusketak, kontzertuak, kale giroko jarduerak, hitzaldiak, eztabaidak...


Bestalde, gure kanpainak ez du bere baitara bildu nahi. Aitzitik, bera akuilu izatea nahi dugu, gizarte-, kultur-, gazte- taldeek, euskaltzaleek, sindikatuetakoek, musika taldeek, feministek, auzoetakoek, peñek... berezko ekimen autonomoak susta ditzaten, gure hiriaren memoriarentzat orain arte isilarazitako gertaerak ahazmenetik ateratzeko. Horrela, 2018an barna, ahots anitz eta zabala goititu dadin nahi dugu, gertatutakoaren Egia adieraziz eta Estatuari gertaera haietan duen erantzukizuna aitortu dezan galdatuz.

Eremu ofizialean, Sanfermines 78 Gogoan! herri ekimenak erakundeetara eta bertan ordezkaturiko indar politikoetara jo nahi du: Iruñeko Udala, Foru Parlamentua, Nafarroako Gobernua, estatuko Kongresua eta Europako Parlamentua. Gure helburua da haietako bakoitzari, bere eskumen eta erantzukizunen eremuan, konpromiso zehatzak galdatzea Egia bilatzeko, Justizia, aitortza eta ordaina galdatzeko gertaera haietako biktima ororendako.

Ondorio horietarako azpimarratu nahi dugu Egiaren Batzorde bat sortzearen garrantzia, erakundeek babesturik, haren lana modu erabat autonomo eta independentean gauzatuko lukeena. Eremu akademiko, Zuzenbide eta Memoria historikoaren adituek osatuko lukete eta 1978ko Sanferminetako gertaerak ikertzea izanen luke helburu, bizitu zituztenen lekukotzak eta salaketak bilduz, azkenean diktamen bat prestatu eta gizarteari, talde sozialei eta erakundeei berei aurkezteko.

Laburbilduta, handinahiko kanpaina bat, bai, baina erabat beharrezkoa berrogei urte hauetako isiltasun, memoriarik eza eta inpunitatearen zulogunea betetzeko eta haren gainean Egia, Justizia eta Ordaina eskakizuneko etorkizuna eraikitzen hasteko. Denon laguntzarekin lortuko dugu.

Miren Uztarroz



CAMPAÑA 40 ANIVERSARIO

Llevamos ya 40 años de silencios, falsedades e impunidad. Según parece, la carga premeditada, indiscriminada y criminal que presenciaron más de diez mil personas en la plaza de toros el 8 de julio de 1978 no debió de existir. La sentencia dictada dio por bueno que la mejor manera de atajar la minoritaria pelea que había aquel día en un tendido era metiendo al ruedo docenas de policías golpeando a los cientos de personas que allí se hallaban. Luego, todo fueron equívocos policiales, malas interpretaciones de órdenes dadas, lapsus de memoria, extralimitaciones anónimas... Resultado: el sumario fue archivado sin permitir siquiera que hubiera juicio.

Algo similar ocurrió con el asesinato de Germán y las razzias en la calle. Varios policías dispararon con pistola y cetme decenas de balas en la Avda. de Roncesvalles. Una de ellas mató a Germán. ¿Quién la disparó? El Juez afirmó que era imposible saber quien fue su autor, ni si tenía o no orden de hacerlo. Y después de tan sesudo razonamiento, puso su justiciera firma al Auto de archivo del sumario y descansó. Ningún policía llegó siquiera a sentarse en el banquillo. Más de lo mismo. Impunidad total.

Desde el golpe militar fascista del 36, el silencio, la mentira y la impunidad han sido constante en los crímenes, desapariciones, torturas, robos de bebés... practicados durante la Dictadura franquista. Los trabajos hechos en Navarra por sus incansables grupos memorialistas y las querellas interpuestas por los Ayuntamientos de Pamplona y

Sartaguda por los crímenes del franquismo hablan de todas estas prácticas. Más allá de estas fechas, en los últimos cuarenta años hemos sabido también de la impunidad que ha envuelto las muertes debidas a la violencia policial y los cientos de casos de malos tratos y torturas denunciados y nunca investigados.

Pero las cosas están cambiando. El fuerte movimiento de memoria histórica y la mayor sensibilidad mostrada por algunos ayuntamientos, parlamentos y gobiernos autonómicos (Navarra es ejemplo de esto hoy en día) están abriendo una brecha de cara a la obtención de Verdad, Justicia y Reparación para todas estas vulneraciones de derechos humanos.

En este 40 Aniversario, la campaña de Sanfermines 78 Gogoan! busca profundizar en lo anterior. La misma se asienta en dos grandes pilares. Por un lado, impulsar todo un conjunto de actividades que busquen rellenar el vacío de Verdad que cuarenta años de silencio, mentira y marginación han creado en nuestra sociedad. Por otro, requerir a nuestras instituciones a fin de que, más allá de declaraciones y formalidades –siempre necesarias y plausibles– avancen por la vía del compromiso para recuperar la Verdad sobre aquellos hechos y, en base a esto, hacer que la Justicia y la Reparación puedan ser una realidad a corto plazo.

Queremos que nuestro trabajo de sensibilización social llegue a todos los sectores sociales posibles. A tal fin, y comenzando con suficiente antelación, desde noviembre de 2017 hasta los propios sanfermines de 2018, vamos a impulsar todo tipo de actividades en los más diversos ámbitos: ciclo de cine, obra de teatro, bertsolarismo, exposiciones fotográficas, conciertos, actividades de calle, charlas y debates...

Por otro lado, nuestra campaña no pretende encerrarse en sí misma. Queremos, por el contrario, que la misma sea un acicate para que los distintos colectivos sociales, culturales, juveniles, euskaltzales, sindicales, musicales, feministas, barriales, peñas, etc. impulsen iniciativas propias y autónomas a fin de rescatar para la memoria de nuestra ciudad unos hechos silenciados hasta la fecha. Queremos así que una extensa y plural voz se eleve a lo largo de 2018 afirmando la Verdad de lo ocurrido y exigiendo al Estado reconozca su responsabilidad en aquellos hechos.

En el terreno oficial, la campaña 40 Aniversario de Sanfermines 78 Gogoan! quiere dirigirse a las distintas instituciones y fuerzas políticas en ellas representadas: Ayuntamiento de Pamplona, Parlamento Foral, Gobierno de Navarra, Congreso estatal y Parlamento Europeo. Nuestro objetivo es reclamar de cada una de ellas, dentro del ámbito de sus distintas competencias y responsabilidades, compromisos concretos en el terreno de la búsqueda de la Verdad, la exigencia de Justicia y el reconocimiento y Reparación para todas las víctimas de aquellos hechos.

Queremos destacar a estos efectos la importancia de creación de una Comisión de la Verdad que, respaldada a nivel institucional, desarrolle su trabajo de forma completamente autónoma e independiente. Estaría para ello compuesta por personalidades y expertos del ámbito académico, del Derecho y la Memoria histórica y tendría por objetivo investigar los sucesos de Sanfermines de 1978, recoger los testimonios y denuncias de quienes los vivieron y elaborar finalmente un Dictamen a presentar a la sociedad, sus grupos sociales y las propias instituciones.

En resumen, una campaña ambiciosa, sí, pero completamente necesaria de cara a rellenar el foso de silencio, desmemoria e impunidad de estos cuarenta años y comenzar a edificar sobre él un futuro de Verdad, Justicia y Reparación. Con la colaboración de todas y todos lo conseguiremos.

SF-78
INPUNITATEARI – STOP – IMPUNIDAD

MANIFESTUA

Aurki beteko da 1978ko Sanferminen 40. urteurrena. Hamar mila lagun izan ziren eraso polizial basatiaren lekuko zezen plazan. Han, bereizi gabe, benetako tiroak bota zituzten harmailetan zegoen jendearen aurka. Geroago, karriketan, Germán Rodríguez gaztea erail zuten polizien balek. “Disparar con todas vuestras energías. No os importe matar” erran zuten poliziaren irratitik. Aginduak gogotik bete ziren. Hiria suntsitua gelditu zen. Bestak, lehertuak.

Bai Iruñea hiriko Batzorde ikertzaileak bai Peñen Batzordeak baieztatu zuten gertatutakoa ez zela ustekabean suertatu, aurrez aldetik pentsatua izan zela, ordea, eta haren erantzunkizuna UCDren Gobernuari zegokiola. Horrekin guztiarekin adostasuna azaldu zuten, salbuespenik gabe, oposizioko alderdi politikoek, sindikatuek, Peñen Batzordeak eta gizarte, auzo eta kultur talde eta kolektibo aunitzek.

Alabaina, ez zen inolako erantzukizun penal, politiko edo zibilik deklaratu. Erasoa jasan zuen inori ez zitzaion egia errekonozitu, ez zitzaion justizia egin, ez eta inolako ordainik eman ere. Gobernuak boikota egin zion ikerketari. Justiziak beste aldera begiratu zuen. Inpunitatea erabatekoa izan zen. Han ez zen deus ere gertatu.

Baina Sanfermin haien oroitzapena ez da inoiz itzali. Urtez urte salatu egin dugu eta orain, 40 urte iraganda, irmotasun handiagoarekin egiten dugu. Horregatik gaur, behean sinatzen dugunok gogorarazten dugu Egia, Justizia eta Ordaina eskakizunak hor segitzen duela, ase gabe, eta orduko erantzulea UCDren Gobernua izan zela eta, finean, Estatua.

Hori dela eta, bi deiera egin nahi ditugu. Lehenik eta behin, herritarrei eta haien talde sozial eta politiko guztiei, bakoitzak bere eremuan, botereak ezkutatu nahi izan duen eraso hiltzaile haren egia azalarazi dezan. 40. urteurrenak oihu itzela izan behar du Estatuari galdatzeko gertaera haietan izaniko erantzukizun zuzena onar dezan.

Bigarrenik, gure erakundeengana –Iruñeko Udala, Foru Parlamentua eta Gobernua– jo nahi dugu, haiek urrats sendoak eman ditzaten Egia, Justizia eta Ordaina eskakizunak, orain arte ukatuak, gauzatuak izan daitezen.

Gauzak horrela, Egiaren Batzorde bat sortzea galdatzen dugu, gertaera haien eta beren eragileen gainean irizpena eman dezan, bai eta aurrekotik etor litezkeen erantzukizunen gainean ere. Orobat, erakundeetan SF-78ko gertaeretako biktimei aitortza ofiziala eman dakien eta aurrekotik heldu litezkeen erreparazio neurri guztiak har daitezen.

Gure aldetik, adierazten dugu lan egiteko eta laguntzeko dugun konpromisoa helburu hauekin planteatzen diren herritarren ekimen guztiei dagokienez.

SF-78
INPUNITATEARI – STOP – IMPUNIDAD

MANIFIESTO

Pronto se cumplirá el 40 aniversario de los Sanfermines de 1978. Diez mil personas fueron testigos en la Plaza de Toros de la brutal agresión policial. Allí se disparó indiscriminadamente fuego real contra la gente que ocupaba los tendidos. Luego, en la calle, un joven, Germán Rodríguez, sería asesinado por balas policiales. "Disparar con todas vuestras energías. No os importe matar", se dijo desde la emisora policial. Las órdenes fueron cumplidas a conciencia. La ciudad quedó arrasada. Las fiestas reventadas.

Tanto la Comisión Investigadora de la ciudad de Pamplona como la de las Peñas sanfermineras afirmaron que aquello no fue casual, sino premeditado y que la responsabilidad por lo sucedido correspondía al Gobierno de UCD. Suscribieron lo anterior, sin excepción, los partidos de la oposición y centrales sindicales, la Comisión de Peñas y todo un amplio abanico de colectivos sociales, vecinales, culturales...

Aún así, ninguna responsabilidad penal, política o civil fue declarada. A ninguna persona agredida se le reconoció verdad, otorgó justicia, ni practicó reparación alguna. El Gobierno boicoteó las investigaciones y la Justicia miró hacia otro lado. La impunidad fue total. Allí no había pasado nada.


Pero el recuerdo de aquellos Sanfermines nunca se ha apagado. Año tras año lo hemos denunciado y ahora, pasados 40 años, lo hacemos con más firmeza. Por eso hoy, los grupos abajo firmantes afirmamos que la exigencia de Verdad, Justicia y Reparación sigue pendiente y que el responsable de aquello fue el Gobierno de UCD y, en definitiva, el Estado.

En consecuencia, queremos hacer un doble llamamiento. En primer lugar, a la ciudadanía y a todos sus grupos sociales y políticos a fin de que, cada cual en su espacio, haga aflorar la verdad de aquella criminal agresión que el poder ha pretendido ocultar. El 40 aniversario ha de ser así un inmenso grito en exigencia al Estado del reconocimiento de su responsabilidad directa en aquellos hechos.

En segundo término, queremos dirigirnos también a nuestras Instituciones –Ayuntamiento de Pamplona, Parlamento y Gobierno Foral– a fin de que sean dados por éstas pasos firmes que permitan materializar las exigencias de Verdad, Justicia y Reparación hasta ahora negadas.

Reclamamos así la creación de una Comisión de la Verdad que dictamine sobre aquellos hechos, sus causantes y las responsabilidades derivadas de lo anterior y que, en los distintos ámbitos institucionales, se dé reconocimiento oficial a las víctimas de los sucesos de SF-78 y se adopten cuantas medidas de reparación se deriven de lo anterior.

Por nuestra parte, expresamos nuestro compromiso de trabajo y apoyo a cuantas iniciativas ciudadanas sean planteadas con estos objetivos.



Fefa García

GERTAERAK

LOS HECHOS


Belén Arévalo

IKERKETA: PEÑEN DOSIERRA

Iruñeko Peñak ez dira San Fermin bestetako funtsezko elementua soilik. Horiek zapuzten direnean ere, 1978ko haiek bezala, protagonista izan dira eraso kriminal hari aurre egiteko eta, ondoren, Egia, Justizia eta Ordaina galdatzeko.

Gau hartan bertan, 9ko goizaldean, ordu bietan, Peñen Batzordeak agiri bat eman zuen argitara. Bertan, Poliziaren jardun kriminala salatu eta hiritik erretiratzeko galdatzen zuen, bai eta Gobernari zibil eta Barne ministroaren dimisioa eskatu ere. Geroago, 11ko goizaldean, galdatze horietako bakar bat ere bete ez zela, aitzitik, okupazio eta errepresio polizialak jarraitzen zuela, Peñen Batzordeak bukatutzat eman zituen bestetako bere jarduerak. Egun hartan bertan, 21:00etan, Udalak sanferminak etetea erabaki zuen ofizialki.

Lehenik eta behin, Peñen Batzordeak Ikerketa Batzorde bat sortu zuen, gertaerei buruzko egia ezartzeko eta behar bezalako erantzukizunak galdatzeko. Horretarako talde juridiko bat sortu zuen, lau abokatuk eraturik, bidezkotzat jotzen ziren legezko ekintzak (salaketak, kereila, errekurtsoak...) gauzatzeko.

Batzorde horrek egin zuen dosierra honako hauetan oinarritu zen: 2.549 deklarazio, Zezen plazako gertaerei buruzkoak; 1.248 Iruñeko karriketan gertatutakoaren ingurukoak; 33 lekukotza, fisikoki kalteak hartutako pertsonena eta 570 gehiago, kalte ekonomikoak jasan zituztenena. Kalte partikularrek, osotara (publikoak alde batera utzita) 117 milioi pezeta egin zuten.

Poliziak material ugari erabili zuen. Haren adierazpenen arabera: 5.000 gomazko pilota baino gehiago; 1.000 ke pote inguru eta beste horrenbeste negar gasezko; 9 mm parabellumeko 100 jaurtigai eta 9 mm laburreko beste 50. Era berean, Batzordeak bala zorro ugari eta argazki eta soinu-materiala bildu zituen. Alabaina, Justiziak ez zuen hori guztia ia aintzat hartu.

IKERKETA: PEÑEN DOSIERRA

Las Peñas de Iruñea no son solo un elemento esencial de las fiestas de San Fermín. También cuando éstas se truncan, como en aquellas de 1978, han sido protagonistas a la hora de dar respuesta a aquella criminal agresión y exigir posteriormente Verdad, Justicia y Reparación.

Ya en aquella misma noche, a las dos de la madrugada del día 9, la Comisión de Peñas sacó un comunicado condenando la actuación criminal de la Policía y exigiendo su retirada de la ciudad, así como la dimisión del Gobernador Civil y el ministro de Interior. Más adelante, en la madrugada del día 11, tras no haberse cumplido ninguna de estas exigencias y, por el contrario, mantenerse la ocupación y represión policial, la Comisión de Peñas dio por terminadas sus actividades en las fiestas. Ese mismo día, a las 21,00 horas, el Ayuntamiento acordó oficialmente la suspensión de los sanfermines.

Lo inmediato, por parte de la Comisión de Peñas, fue crear una Comisión de Investigación a fin de establecer la verdad de los hechos y exigir las responsabilidades oportunas. Para ello creo también un equipo jurídico integrado por cuatro abogados para interponer cuantas acciones legales (denuncias, querella, recursos...) se estimasen oportunas.

El dosier que realizó esta Comisión se basó en 2.549 declaraciones relativas a los hechos de la Plaza de Toros; 1.248 referidas a lo acontecido en las calles de Pamplona-Iruñea; 33 testimonios de personas dañadas físicamente y 570 más que sufrieron daños económicos. Los daños totales particulares (excluidos los públicos) ascendieron a 117 millones de pesetas.

El material utilizado por la Policía –según sus propias declaraciones– fue de más de 5.000 pelotas de goma; alrededor de 1.000 botes de humo y otros tantos lacrimógenos; unos 100 proyectiles de 9 mm parabellum y 50 más de 9 mm corto. La Comisión recogió asimismo numerosos casquillos de bala y material fotográfico y sonoro. Todo esto, sin embargo, apenas fue considerado por la Justicia.

“GERTAEREN FILMA”

(Iruñeko Peñen Batzorde Ikertzaileak 1978ko abuztuan prestatu eta argitaratu zuen «San Fermín 78. Así fue» dosierretik aterata)

“**8a – 20:45.** Azken zezena eta gero... berrogeita hamar lagun inguru jautsi ziren seigarren harmailetatik hondarrera. Letra zuriak zituen pankarta berde bat zabaldu zuten. Bertan honakoa irakur zitekeen: “AMNISTÍA TOTAL. PRESOAK KALERA. SAN FERMÍN SIN PRESOS”. Harmaila horretatik, behin pankarta zabaldurik, hondarreko itzulia egiten hasi ziren, harmailetan iritziak banantzen ziren bitartean. Batzuek txalo egiten zuten. Besteek txistu.

3. harmailaren erdi aldera, 40-50 urte inguruko lagun bat, identifikatu gabea, hondarrean zeudenak iraintzen hasi zen. Bitartean, haren inguruan, zenbait lagun hasi ziren kuxinak eta xanpain botila batzuk botatzen. Hondarrean zeudenen erreakzioa –ehun lagun inguru- berehalakoa izan zen. Talde bat harmailetara igo zen eta kuxinak eta botilak jaurti zizkietenekin kolpeak eta irainak trukatu zituzten. Atralaka bukatu gabe, plazako jendea, ia adostasun osoz, “¡SAN FERMÍN!, ¡SAN FERMÍN! oihukatzen hasi zen.

20:50. Egoera baretua zirudienean, peñetako txikiak, atea ireki bezain agudo, hesi-atzetik sartu ziren ondoan txarangak eta pankartak zituztela. Segituan, segundo gutxi batzuk iraganik, polizia armatuaren 40ren bat ale bortizki sartu ziren, istiluen aurkako materialez horniturik, Miguel Rubio Iruñeko komisario burua lagun zutela. Lehendabiziko momentuetan ikusi ahal izan zen Rubiok aginduak ematen zituela hondarrean zeuden mutilen aurka erasotzeko. Hortaz, Iruñeko baseko polizia armatu batzuek eraso bortitza hasi zuten gomazko pilota eta ke pote ugari erabilita eta borrez kolpeak joz.

Anabasa horretan, zezen plaza betetzen zuen jendea -20.000 lagun inguru- plazatik ateratzen saiatu zen zaldi patiotik; batzuk zezen plazaren barruan ezkutatu ziren... Eguzkiko harmailetatik bat-bateko erreakzioa hasi zen eta polizia armatuari mota guztietako gauzak bota zizkioten: kuxinak, jaki hondarrak, izotza puskak, botila hutsak, eltzeak... Une horretatik bertatik, F.O.P.eko ale batzuek beren armak erabili zituzten eta benetako tiroak bota ere, inor bereizi gabe. Horren erakusgai, kontuan hartu behar da une horietan su armaz zauriturikо zazpi lagunetatik bata goi harmaila estalkidunetan zegoela eta beste bat hondarrean.

Peñetako mutilek lurrean konorterik gabe zegoen polizia armatu bat hartu eta plazako erizaindegira eraman zuten. Unea aprobetxatu zuten polizia armadakoek hesi-atzetik erretiratzeko, izua sortu ondoren, hogeita hamar lagun zauritu ondoren eta aire itogarria utzita horrenbeste ke poteak jaurti ondoren.

21:05. Polizia armatuaren istiluen aurkako berrogeiren bat ale berriro sartu dira plazan, oraingo honetan zaldi patiotik, eta beste eraso bat, lehendabizikoa baino gogorragoa, hala posible bada, egiteari ekin diote. Plaza ke lainoz bete da eta oraindik karrikara ateratzea lortu ez duen jendea arnasa hartu nahian dabil, horretarako aurpegian zapi bat paratuta. Lurrean dauden mutilek aurre egiten diete FOPeko tiroei –batzuk benetakoak, pistolez jaurtikiak– eta kuxinak eta botila hutsak botatzen dizkiete. Eraso polizialak bost minutu inguru iraun du eta hogeita hamar lagun baino gehiago suertatu dira zauriturik.

Lagun talde bat, osotasun pertsonalerako berme osoarekin plazatik atera ezinik, zaldi patiotik haragirako kamioi hozkailudun batean atera da, jokatutako zezenen gorpuzkinak garraiatzeko prest zegoen batean, alegia. Plazako erizaindegitik hasi dira zaurituak eramaten ospitaleetara.

Erizaindegiko medikuak, Martínez de Lecea doktoreak, batzorde ikertzaile honi ziurtagiri bat egin dio eta bertan ondoko hau aipatu:

'FRANCISCO JAVIER MARTÍNEZ DE LECEA Y PLACES, como médico de la enfermería de la Plaza de Toros de Pamplona, certifico que durante los sucesos ocurridos en dicha plaza el día 8-7-78, se atendió en dicha enfermería alrededor de 50-55[1] *personas afectadas de diversas lesiones entre las que se pueden citar:*

- *3 heridos por bala.*
- *1 de ellos por herida de arma de fuego.*
- *Otro con herida en sedal por arma de fuego en región femoral superior izquierda.*
- *Herida por arma de fuego en escápula izquierda.*

Múltiples heridos de diversos tipos y consideración, por pelota de goma, heridas contusas, asfixias, ataques nerviosos, fracturas, contusiones, etc...
Se atendió asimismo un agente miembro de las FOP padeciendo contusión torácica.

Lo que se certifica a los efectos oportunos en Pamplona a fecha de hoy'

Pamplona, 2 de agosto de 1978.
Fdo: Fco. Javier MTNEZ. DE LECEA

Batzorde honek bildutako deklarazioetan aipatzen da **21:15ean**, zenbait pertsona saiatu direla Poliziarekin elkarrizketatzen su-eten bat eskatzeko, plaza hutsarazte aldera. Pertsona horietako bat FOPen ofizial batekin zegoenean, hark Ignacio Llano gobernari zibilaren agindua jaso du sua eteteko. Alabaina, ofizialak erasorako agindu berria eman dio bere sekzioetako bati.

Poliziak plaza utzi ondoren, kanpoaldean kokatu zen. Jendea erretiratu zen, bere etxeetara edo lagunen etxeetan aterpea bilaturik, Iruñean tentsioa eta nahasmendua nagusi baitziren[2].

Gobernu Zibilaren inguruetan[3], Karlos III, Paulino Caballero eta Amaya karriketan bereziki, barrikadak eraiki dira. Liskarrik gogorrenak Gobernu Zibilaren aurrean gertatu dira. Eraiki horretatik metro gutxira «El Pensamiento Navarro»[4] egunkariaren banaketa furgoneta bati su eman zioten.

10ak inguruan, Gobernu Zibilaren (Ignacio Llano gobernariaren) deiari erantzunez, Gobernu Zibilean alderdi politiko, sindikatu, peña batzorde eta berriemaileen ordezkariak bildu ziren. Diotenez, peñetako ordezkari batek Miguel Rubio komisarioari galdetu dio ea nork eman duen polizia plazan sartzeko agindua. Rubiok, oso urduri, adierazten du momentu horretan berak ez duela agindua eman. Gobernari Zibilak, bere aldetik, geroago ziurtatzen zuen ezen, gertaeren lekuko izan arren, ez zekiela ezer aginduaz eta ez zela gauza momentu horietan egoera kontrolatzeko. Era berean adierazi zuen bertaratutakoei dei egin diela denon artean herritarren bakea lor zezaten".

1 - Aipatu beharra dago makatu eta zauritutako lagun asko ez zituztela artatu plazako erizaindegian, osasun etxeetan, ospitaletan edo modu partikularrean baizik.
2 - Gau horretan 78 lagun izan ziren ospitaleratuak eta 150 baino gehiago artatu zituzten ospitaleetan.
3 - Egun Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza izenekoa
4 - «El Pensamiento Navarro» egunkari tradizionalista izan zen, 1981ean desagertu zena.

"PELÍCULA DE LOS HECHOS"

(Extraído del dosier «San Fermín 78. Así fue», confeccionado y editado en agosto de 1978 por la Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona)

"**Día 8 – 20:45**. Tras el último toro, alrededor de cincuenta personas bajaron desde el tendido seis al ruedo, en donde desplegaron una pancarta verde en la que con letras blancas se leía: "AMNISTÍA TOTAL. PRESOAK KALERA. SAN FERMÍN SIN PRESOS". Desde ese mismo tenido, y una vez extendida la pancarta, comenzaron a dar una vuelta al ruedo mientras en los tendidos las opiniones se dividían. Unos aplaudían y otros silbaban.

Hacia la mitad del tendido 3, una persona sin identificar, de unos 40-50 años, comenzó a insultar a los que estaban en el ruedo mientras diversas personas a su alrededor tiraban a la arena varias almohadillas y alguna botella vacía de *champagne*. La reacción de los que estaban en el ruedo –alrededor de cien personas– fue inmediata. Un grupo subió hasta el tendido intercambiando con los que les habían arrojado las almohadillas y botellas, golpes e insultos. Sin que la bronca hubiera terminado, el público de la plaza a gritar, de forma casi unánime. "¡SAN FERMÍN!, ¡SAN FERMÍN!

20:50. Cuando parecía que volvía la calma, los txikis de las peñas entraron por el callejón, nada más abrirse la puerta, con sus charangas y pancartas. Inmediatamente después y a escasos segundos irrumpían violentamente unos 40 miembros de la policía armada, con dotación de material antidisturbios, junto con D. Miguel Rubio, comisario jefe de Pamplona. En los primeros momentos se pudo ver como Rubio daba órdenes de cargar contra los mozos que estaban en la arena, y en consecuencia los miembros de la policía armada, que eran de la dotación de Pamplona, iniciaron una carga violenta con empleo de abundantes disparos de pelotas de goma y botes de humo, y golpeando con las porras.

En ese caos, el público que llenaba la plaza de toros –alrededor de 20.000 personas– intentó salir de la plaza por las puertas del patio de caballos, escondiéndose en el interior del coso taurino, etc. Desde los tendidos de sol se inició una repentina reacción arrojando a la policía armada toda clase de objetos como almohadillas, restos de comida, hielos, cascos de botellas, cacerolas... A partir de este instante, varios miembros de las F.O.P. hicieron uso de sus armas disparando fuego real indiscriminadamente. Como botón de muestra, conviene señalar que de los siete heridos por arma de fuego en esos momentos, uno estaba en andanada –la localidad alta de la plaza–, mientras que un segundo se encontraba en el ruedo.

Un policía armada que se encontraba en el suelo sin conocimiento, es recogido por los mozos de las peñas y trasladado a la enfermería de la plaza, momento que es aprovechado por los miembros de la policía armada para retirarse por el callejón después de haber sembrado el pánico, haber herido a treinta personas y dejado el aire irrespirable a causa de la cantidad de botes de humo que habían arrojado.

21:05. Alrededor de cuarenta miembros de las brigadas antidisturbios de la policía armada vuelven a entrar en la plaza, esta vez por el patio de caballos, realizando otra carga, más enérgica, si cabe, que la primera. La plaza se convierte en una gran humareda y la gente que todavía no ha podido salir a la calle, procura respirar colocándose un pañuelo en el cara. Los mozos que están en el suelo hacen frente a los disparos de las FOP –algunos de fuego real con pistolas– arrojándoles almohadillas y botellas vacías. La carga policial dura alrededor de cinco minutos, resultando heridas más de treinta personas.

Un grupo de personas, ante la imposibilidad de salir de la plaza con plenas garantías para su integridad física, sale del patio de caballos en un camión frigorífico de carne, que está prepa-

rado para trasladar los restos de los toros lidiados. Desde la enfermería de la plaza comienzan a trasladarse a los heridos a los centros hospitalarios. El doctor Martínez de Lecea, médico de la enfermería, extendió un certificado a esta comisión investigador en el que se señala lo siguiente:

> *'FRANCISCO JAVIER MARTÍNEZ DE LECEA Y PLACES, como médico de la enfermería de la Plaza de Toros de Pamplona, certifico que durante los sucesos ocurridos en dicha plaza el día 8-7-78, se atendió en dicha enfermería alrededor de 50-55[1] personas afectadas de diversas lesiones entre las que se pueden citar:*
>
> - *3 heridos por bala.*
> - *1 de ellos por herida de arma de fuego.*
> - *Otro con herida en sedal por arma de fuego en región femoral superior izquierda.*
> - *Herida por arma de fuego en escápula izquierda.*
>
> *Múltiples heridos de diversos tipos y consideración, por pelota de goma, heridas contusas, asfixias, ataques nerviosos, fracturas, contusiones, etc.*
>
> *Se atendió asimismo un agente miembro de las FOP padeciendo contusión torácica.*
>
> *Lo que se certifica a los efectos oportunos en Pamplona a fecha de hoy'*
>
> *Pamplona, 2 de agosto de 1978*
> *Fdo: Fco. Javier MTNEZ. DE LECEA*

En declaraciones recogidas por esta Comisión, se señala que **sobre las 21:15**, distintas personas intentaron dialogar con la Policía para pedir un alto el fuego, de tal manera que se pudiese desalojar la plaza. Cuando una de esas personas se encontraba junto a un oficial de las FOP, éste recibió la orden dada por el Gobernador Civil, Ignacio Llano, a través de un número, para que cesase el fuego. Sin embargo, el oficial dio una nueva orden de carga a una de sus secciones.

Una vez que la policía abandonó la plaza, tomó posiciones en el exterior. El público se fue retirándose a sus casas o refugiándose en otras de amigos, ya que la tensión y la confusión reinaban en Pamplona[2].

En los alrededores del Gobierno Civil[3], especialmente en Carlos III, Paulino Caballero y Amaya se forman barricadas7. Los enfrentamientos más duros se registran frente al Gobierno Civil. A escasos metros de ese edificio ardía una furgoneta de reparto de «El Pensamiento Navarro».[4]

Sobre las 10 de la noche se reunían en el Gobierno Civil representantes de partidos políticos, centrales sindicales, comisión de peñas e informadores, respondiendo a la llamada del Gobierno Civil (por el gobernador Ignacio Llano). Al aparecer el comisario Miguel Rubio, un representante de peña le pregunta acerca de quien había dado esa orden de entrada de la policía en la plaza. Rubio, muy nervioso, declara en ese momento que él "no había dado la orden". Por su parte, el Gobernador Civil, aseguraba después que a pesar de que fue espectador de los hechos, no sabía nada de la orden y que no era capaz de controlar la situación en esos momentos. Igualmente manifestó que había convocado a los presentes para conseguir, entre todos, la paz ciudadana"

1 - Es preciso señalar que muchas otras personas heridas y contusionadas no fueron atendidas en la enfermería de la plaza, sino en centros de salud y hospitalarios o de forma particular.


2 - Esa noche 78 personas fueron ingresadas y más de 150 atendidas en los distintos centros hospitalarios.

3 - Actualmente denominado Delegación del Gobierno en Navarra

4 - «El Pensamiento Navarro» fue un diario tradicionalista e integrista que desapareció en 1981.

GERMÁN RODRÍGUEZEN HERIOTZA

(Iruñeko Peñen Batzorde Ikertzaileak 1978ko abuztuan prestatu eta argitaratu zuen «San Fermín 78. Así fue» dosierretik aterata)



Xabier Morrás

"...Gobernu Zibila polizia armatu andanak inguraturik zegoen eta, handik, FOPak Paulino Caballerotik jautsi eta Karlos IIIean sartu ziren Leire, Arrieta eta Orreaga karriketatik.

Istiluen aurkako materiala botatzen segitu zuten Karlos III etorbiderantz.. Bereizirik gabe, balkoi eta etxebizitzetara egin zuten, horietako batzuk hutsik bazeuden ere. Gomazko pilota et ke poteen tiroen artean tiro lehorren bat entzun ahal zen, FOPeko agenteek botata. Minutu batzuk geroago, taldeko buruak txilibitua jo zuen autoetara itzul zitezen baina agenteek ez zieten aginduei kasurik egin. Giroa itogarria zen jaurtikitako ke eta gas poteen ondorioz. FOPak desagerturik, barealdi labur baten ondoren, erortzen ari ziren kristalen zarata entzun zen, bai eta bankuetako alarma sirenak ere, Iruñea ordura arte ezagutzen ez zituen tentsio eta izu egoeran zegoela.

Berriro FOPak Paulino Caballeron agertu ziren, batzuk zirkulazioaren kontrako norabidean, beste batzuk norabide egokian, oinez, eremu horretan zebiltzan ibilgailuen aurrean, Orreaga etorbidean bat egin zuten arte.

Istilurik aurkako materiala benetako su bihurtu zen. Gaueko 10:00-10:20ak ziren; tiroak Karlos III.a etorbiderantz jo zituzten. Lehorrak ziren, asotsa aldetik pilota eta ke tiroetatik oso ezberdinak. Bi agente aurrera egiten ari ziren, metraileta eta pistola erabiltzeko prest, Karlos III.a etorbiderantz.

Paulino Caballero karrikak eta Orreaga etorbideak bat egiten duten tokian, poliziak zeuden soilik eta beren ahotsak eta bere armekin sortutako zaratak baino ez ziren entzuten. "Heriotzako bost minutu izan ziren". Bala tiro horietako batek German jo zuen eta hiltzeko zauriak eragin zizkion[1]; hiru gaztek ikusi zuten erortzen, hartu eta Nafarroako Ospitale Probintzialera eraman zuten. Harekin batera besape aldean balaz zauritutako beste gazte bat ere".

1 - Hil zuten toki ondoko eraikin, auto, denda hurbiletan 36 bala zorro aurkitu ziren 0,80 eta 2,30 metro arteko altueran. Bistan da, hiltzeko asmoz bota zituzten tiroak.

LA MUERTE DE GERMÁN RODRÍGUEZ

(Extraído del dosier «San Fermín 78, Así fue», confeccionado y editado en agosto de 1978 por la Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona)

"...desde el Gobierno Civil, rodeado por gran cantidad de policías armados, las FOP iniciaron una bajada por Paulino Caballero, entrando a Carlos III por las calles Leyre, Arrieta y Roncesvalles.

Seguían disparando material antidisturbio en dirección a Carlos III. Lo hacían indiscriminadamente a balcones y viviendas, que incluso estaban desocupadas. Entre estos tiros de pelotas de goma y botes de humo se pudo escuchar algún tiro seco, disparado por agentes de las FOP. Pocos minutos más tarde, el jefe del grupo toco el silbato indicando que volviesen a los coches sin que los agentes obedeciesen sus órdenes. El ambiente era irrespirable debido a los botes de humo y los gases lanzados. Una vez desaparecidas las FOP, tras unos momentos de calma, se escucharon ruedos de cristales que caían, sirenas de alarma de bancos, manteniendo Pamplona en una tensión y pánico desconocido hasta el momento.

Nuevamente las FOP irrumpen en Paulino Caballero, unos en dirección contraria a la circulación, otros a favor de la dirección, a pie y delante de los vehículos que transitaban por esta zona hasta confluir con la Avda. Roncesvalles.

El material antidisturbios se tornó en fuego real. Era entre las 10,00-10,20 de la noche; los disparos se dirigieron hacia Carlos III. Eran secos, muy diferenciados en cuanto al sonido de los de pelotas y botes. Dos de los agentes iban avanzando metralleta en ristre y pistola en mano hacia la Avda. Carlos III.

En la confluencia de Paulino Caballero con Avda. Roncesvalles, solamente se encontraban policías y no se escuchaba ni otras voces ni otros ruidos que las suyas y las producidas por sus armas. "Fueron cinco minutos de muerte". Uno de estos impactos alcanzó a Germán, que cayó herido de muerte[1]; tres jóvenes lo vieron caer, lo recogieron, trasladándole al Hospital Provincial de Navarra y, junto a él, a otro joven herido de bala en la región axilar".

---

1 - En los edificios, coches, comercios, etc. cercanos al lugar donde lo mataron fueron localizados 36 impactos de bala a una altura entre 0,80 m. y 2,30 m. Evidentemente, tiraron a matar.



Rosa Silva

1978KO SANFERMINETAKO BIGARREN BIKTIMA: JOSEBA BARANDIARAN

Germán Rodríguez ez zen polizia espainiarraren indarkeria hiltzailearen biktima bakarra izan 1978ko Sanferminetan.

Germanen erailketa salatzeko greba orokorrak geldiarazi zuen Nafarroa. Euskal Herriko gainerako tokietan elkartasunezko borroka eguna deitu zuten, segimendu orokorra izan zuena herri eta auzo aunitzetan. Are, Pasai Antxon (Gipuzkoa) San Fermin besta berezkoak etetea erabaki zuten. Elkartasuna Madril eta Bartzelonara iritsi zen eta bertan milaka lagun atera zen karriketara arrazoi berarengatik.

Uztailaren 11n, Donostian, Aldapetan, mobilizazio horietako batean, bala polizial batek hiltzeko zauriak eragin zizkion bularrean Joseba Barandiaran gazteari. Hasieran poliziak ukatu bazuen ere (hura aurkako joeraren taldeen arteko liskarraren ondorio izan zela ere aditu zen), ikerketa judizialek baieztatu zuten beranduago tiroa poliziak bota zuela.

Zazpi urte beranduago, kasua largetsia izan zen ezin izan baitzen Joseba Barandiaranen bizia eten zuten tiroen egilea identifikatu. German Rodriguezen heriotzagatik irekitako sumarioarekin bezala, Poliziak oztopo guztiak paratu eta ikerketak boikotatu zituen, hari edozein erantzukizun leporatzea saiheste aldera. Eta epaileek ontzat jo zuten hura guztia.

LA SEGUNDA VÍCTIMA DE LOS SANFERMINES-1978: JOSEBA BARANDIARAN

Germán Rodríguez no fue la única víctima de la violencia criminal de la Policía español durante los Sanfermines de 1978.

En protesta por el asesinato de Germán, una huelga general paralizó Nafarroa. En el resto de Euskal Herria fue convocada una jornada de lucha de solidaridad que tuvo un seguimiento generalizado en muchos pueblos y barrios. En Pasajes Antxo (Gipuzkoa) se decidió incluso suspender sus propias fiestas patronales de San Fermín. Y la solidaridad llegó hasta Madrid y Barcelona, donde miles de personas salieron también a la calle por los mismos motivos.

El 11 de julio, en Donostia, en la cuesta de Aldapeta, en una de estas movilizaciones, una bala policial hirió en el pecho mortalmente al joven Joseba Barandiarán. Aún cuando al principio ésta lo negó (se habló, incluso de que aquello fue fruto de enfrentamientos entre grupos de signo contrario), las investigaciones judiciales afirmaron posteriormente que el disparo había sido obra de la Policía.

Siete años después de esto, el caso fue sobreseído al no poder ser identificado el autor de los disparos que acabaron con Joseba Barandiaran. Al igual que con el sumario abierto por la muerte de Germán Rodríguez, la Policía puso todo tipo de obstáculos y boicoteó las investigaciones para evitar que se le pudiera achacar cualquier tipo de responsabilidad. Y los jueces dieron por bueno todo aquello.




Teresa Sabaté

INPUNITATEA

LA IMPUNIDAD

Tomás Astiz



ZERGATIK GERTATU ZEN HURA GUZTIA?

78ko Sanferminetako gertaerei buruzko egia argitzea funtsezkoa da. Bertsio polizial-judizial ofizialaren arabera, zezen plazako funtsik gabeko jardun basati eta bereizkuntzarik gabekoa gaizki ulertze, inork ez dakien norbaitek emandako agindu eta aitatasun ezezaguneko gehiegikeriaren baten ondorio izan zen. German Rodriguezen hilketaren kasuan, epaiak adierazi zuen ez zitekeela tiroen egilearen identitatea zehaztu, eta kito. Noski, hori beti gertatzen da polizia batzuek batera tiro egiten dutenean, sutuz nahi adina, bereizkuntzarik egin gabe. Justizia erru-lagun izan zen.

Iruñea hiriko Batzorde Ikertzaileak eta Peñen Batzordeak sortutakoak baieztatu zuten hura ez zela ustekabean izan, aldez aurretik pentsatutakoa baizik, eta gertatutakoaren erantzukizuna UCDren Gobernuarena zela. Hortaz, nori sinetsi, polizia-epaileei edo batzorde ikertzaileei? Noski, azken horiek adierazi zutenaren arabera, hura aldez aurretik pentsaturiko zerbait baldin bazen, hauek dira egin beharreko galderak: non eta nork erabaki zuen esku-hartze hura? Zergatik egin zuen? Zer helburu nahi zuten lortu?

1978ko Sanferminetako gertaerak modu bakanean eta kasuistikoan aztertzeak eragozten du, neurri handi batean, arrazoiz ulertzea. Azken hori lortzeko, gertaera horiek Diktadura frankistaren azken aldiko eta Trantsizio politikoaren testuinguru orokorrean kokatu behar dira. 1975 eta 1980. urteen artean, bai Nafarroan bai Euskal Herri osoan (Gasteiz, martxoak 3; Jurramendi, amnistiaren aldeko astea...), bai eta Estatuaren gainerako lurretan ere (Atochako abokatuak, Scala kasua, Malagan, Tenerifen izandako erailketak...) antzeko gertaerak izan ziren. Kasu bakanak izan ziren, ustekabearen ondorio, edo harremanik izan ote zen haien artean?


Gure iritzia bat dator bigarrenarekin. Estatu frankistaren aparatuak, zuzenean edo talde parapolizialen bitartez, urte haietan bizi zen haustura politikoaren prozesua bideratu nahi izan zuen. Horretarako, erreforma politiko, sindikal eta estatutarioa diseinatu zen, ahalik eta erakunde zahar gehien mantenduko lukeena (monarkia, armada, polizia, judikatura) hainbat eremutan amore ematearen truke (legalizazio politikoak, askatasun demokratikoak eta Estatuko aparatuaren deszentralizazioa).

Hura guztia bideratzeak ekartzen zuen Trantsizioaren inbututik ateratzen zen adierazpen politiko oro errotik ebakitzea. Sindikatu eta langileen bideratzea (Gasteiz, Scala kasua), bideratze dinastikoa (Jurramendi), eraiki beharreko Estatu autonomikoaren ereduaren bideratzea (Sanferminak). Gasteiz eta Sanferminetako sarraskiak beste modu batez azaldu nahi izatea (salbuespena, gehiegikeriak, akatsak...), gainera, adimenari iraina egitea da.

1978ko Sanferminak, horrela, autodeterminazio eskubidearen eskakizun orokorraren (indar abertzale, demokratiko eta ezkerreko guztiek –EAJ, PSOE, PCE, indar abertzaleak, ezkerreko muturrekoak, CCOO, UGT, ELA– eskatutako proiektu komuna Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarako) eta bidea egiten ari zen egoera instituzional berriaren artean kokatu ziren. Bost hilabete beranduago, 1978ko abenduan, onetsitako Konstituzioak kontrako esparrua finkatuko zuen: subiranotasun espainiar bakarra, Estatuko autonomia eredua (ez federala, ez konfederala, erabakitzeko eskubiderik gabekoa) eta lau probintzien arteko banantzea: Euskal Autonomia Erkidegoa, alde batetik, eta Nafarroa, bestetik.

Jurramendiko gertaerak (1976a: bi lagun erailik) eta urte hartako maiatzaren lehenean, Gaztelu plazan, hamar mila lagun baino gehiagoren aurka eragindako karga polizial basatia izan ziren sanferminetako gertaeren aurrekari. Langile eta herri mugimendu indartsua eta Nafarroa osoan barna zabalduriko eskakizun euskaltzale eta abertzaleak oztopo handia ziren Trantsizio hartan finkatu nahi zen proiekturako. Hala, 1978ko sanferminak botereak mahai gainean emandako ukabilkoa izan ziren, populazioa izutzeko eta ohartarazteko egoerak ezin zuela ordun arte bezala jarraitu; ematen zenarekin konformatu beharko zela zeren, bestenaz...

Bertsio polizial-judiziala estalgarri hutsa izan zen eraso kriminal hura azaltzeko. Bada gertaera haiek argitzeko tenorea, haien zergatiak azaltzeko eta berrogei urte iraun duen inpunitatea deusestatzeko.



Ernesto Murillo

¿POR QUÉ OCURRIÓ TODO AQUELLO?

Aclarar la verdad sobre los sucesos de Sanfermines de 78 es esencial. Según la versión oficial policial-judicial, la gratuita, salvaje e indiscriminada actuación en la Plaza de Toros fue fruto de malentendidos, órdenes que nadie sabe quién dio y alguna que otra extralimitación de paternidad desconocida. En el caso de la muerte de Germán Rodríguez, la sentencia afirmó que no se podía determinar la identidad del autor de los disparos, y punto. Claro está, es lo que ocurre siempre que varios policías disparan a la vez, a discreción, y de forma indiscriminada. La Justicia fue cómplice.

La Comisión Investigadora de la ciudad de Pamplona y la creada por la Comisión de Peñas afirmaron que aquello no fue casual, sino premeditado, y que la responsabilidad por lo sucedido correspondía al Gobierno de UCD. Pues bien, ¿a quién creer? ¿A la Policía y jueces, o a las comisiones investigadoras?.Claro está, si tal como éstas afirmaron, aquello fue premeditado, las preguntas a hacerse son: ¿dónde y quién acordó aquella intervención? ¿Por qué lo hizo? ¿Que objetivos se perseguían?

Analizar los hechos ocurridos en Sanfermines de 1978 de forma aislada y casuísticamente impide en buena medida su racional comprensión. Para lograr esto último, hay que situar estos sucesos en el contexto general del fin de la dictadura franquista y los años de la Transición política. Entre 1975 y 1980, tanto en Nafarroa y el conjunto de Euskal Herria (Gasteiz, 3 de marzo; Montejurra, semana pro-amnistía...), como

también en el resto del Estado (abogados de Atocha, caso Scala, asesinatos en Málaga, Tenerife...), sucedieron sucesos similares. ¿Fueron éstos casos aislados, fruto de la casualidad, o hubo alguna relación entre ellos?

Nuestra opinión es la segunda. El aparato de Estado franquista –bien directamente con sus propios medios, bien indirectamente a través de grupos parapoliciales– quiso encarrillar el proceso de ruptura política que se estaba viviendo en aquellos años. Se diseñó para ello una reforma política, sindical y estatutaria que permitiera mantener el máximo posible de las antiguas instituciones (Monarquía, Ejército, Policía, judicatura...) a cambio de concesiones en el terreno de las legalizaciones políticas, las libertades democráticas y la descentralización del aparato del Estado.

Encarrilar aquello suponía cortar de raíz toda expresión política que se saliera de aquel embudo que fue la Transición. Encarrilamiento sindical y obrero (Gasteiz, caso Scala...), dinástico (Montejurra), del modelo de Estado autonómico a levantar (sanfermines)... Pretender explicar de otra manera (excepcionalidad, extralimitaciones, errores) masacres como las de Gasteiz e Iruña, supone, sin más, un insulto a la inteligencia.

Los Sanfermines de 1978 se situaron así entre lo que estaba siendo una reivindicación generalizada del derecho de autodeterminación y un proyecto común para Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa reclamado por todas las fuerzas nacionalistas, democráticas y de izquierdas (PNV, PSOE, PCE, fuerzas abertzales, extrema izquierda, CCOO, UGT, ELA) y el nuevo escenario institucional que se abría paso. La Constitución, aprobada cinco meses después, en diciembre de 1978, asentaría un marco opuesto: soberanía única española, modelo autonómico de Estado (ni federal, ni confederal, ni derecho a decidir) y separación entre las cuatro provincias hermanas: la Comunidad Autónoma Vasca, por un lado, y Navarra por otro.

Los hechos de Montejurra (1976: dos personas asesinadas) y la salvaje carga policial llevada a cabo el 1º de Mayo de ese mismo año en la Plaza del Castillo contra más de diez mil personas fueron precedentes de los sucesos sanfermineros. El potente movimiento obrero y popular existente y la extensión de las reivindicaciones vasquistas y abertzales por toda Nafarroa eran un fuerte obstáculo para el proyecto que se pretendía asentar con aquella Transición. Los Sanfermines de 1978 fueron así el puñetazo dado en la mesa por el poder a fin de atemorizar a la población y advertir que aquello no podía seguir como hasta la fecha; que había que conformarse con lo que se daba, porque de lo contrario...

La versión policial y judicial fue una mera tapadera para aquella criminal agresión. Es hora ya de aclarar aquellos hechos, mostrar el por qué de los mismos y acabar con una impunidad que dura ya cuarenta años.

ETA JUSTIZIAK BESTE ALDERA BEGIRATU ZUEN

1978ko uztailaren 8an, Iruñeko zezen plazan, 10.000 lagun baino gehiago izan ziren lekuko, benetako tiroak bota zituztenean hondarrean eta harmailetan zeudenen aurka, bereizi gabe. Zazpi lagun balaz zauriturik izan ziren, haietako bost larri edo oso larri zauriturik ere; berrehun baino gehiago zauriturik. Nork eman zuen agindua? Nork gauzatu zuen hura?

Maila judizialean, afera gaizki hasi zen. Lehenik eta behin, kasuaren fiskalak, akusazio abokatuen iritziaren aurka, hiru sumariotan zatitu zuen. Lehena, 151/78, German Rodriguezen hilketarengatik: bigarrena, 81/80, karriketan izandako zaurituengatik, eta hirugarrena, 82/80 zezen plazako gertaerengatik. Geroago, fiskal horrek ez zuen ia ekarpenik egin eta ez zuen inolako frogarik eskatu ikerlanetan. Gutxi balitz, prozeduran instrukzioko zazpi epailek eta auzitegiko sei magistratuk hartu zuten esku. Inork ez zuen patata beroa hartu nahi.

Barne Ministerioak behin eta berriz, nabarmenki, boikotatu zituen frogak eskatzea eta haiek gauzatzea (polizien identifikazioa, dokumentazioa igortzea, frogarik ez ekartzea...) Akusazio partikularrak ezin izan zion polizia bakar bati ere galdeketa egin. Eskatutako froga garrantzizkoak gauzatzea ez zuten aintzat hartu: zezen plazan, karriketan eta German hil zuten tokian izandako jardun polizialaren lekukotasun zuzenak, dokumentazio poliziala, Peñen Ikerketa Batzordeak lortutako materiala, e.a.

Akusazio partikularrek egindako kalifikazioak albaramenduz, erailketaz, giza hilketaz, lesioez eta aurrekoak eragindako kalteez mintzo ziren. Kriminaltasun zantzu handiak zeudela eta, auzipetzeko eskaera egin zen ondoko hauen aurka: Migel García komisario burua, Fernando Avila García komandantea, César Jiménez Cacho eta Vicente Lafuente Ramírez kapitainak, eta Benito Pérez Vázquez eta Francisco Abellán Vicente tenienteak. Alabaina ezta polizia bakar bat ere ez zen aulkian jarri. Ez zen inolako zigorrik ezarri. Inolako erantzukizunik ez zen errekonozitu.

Azkenean, epaiak bertsio polizialaren kalkoa izan ziren. Han, gehienez ere, emandako aginduen gaizki ulertze bat gertatu zen eta, edonola ere, ezin ziren ustezko gehiegikeriak banan-banakotu. Germanen hilketaren kasuan, lotsagabekeria handiz, ez zuten ezta errekonozitu ere polizia tokian bertan egona zela. Konstituzio Auzitegiak berretsi egin zuen Iruñeko epaitegi eta audientziaren aurrean izapidetu zen guztia.

Finean, epaiak aspaldian zeuden idatziak. Martín Villa orduko Barne ministroak, gertaeren ondoren honakoa adierazi zuen: "Gureak akatsak izanen dira. Besteak erailketak dira". Erran nahi baita, epaileek aurrekoari beren sinadura paratu baino ez zuten egin.

Y LA JUSTICIA MIRÓ HACIA OTRO LADO

El 8 de julio de 1978, en la plaza de toros de Pamplona, más de 10.000 personas fueron testigos de cómo se disparó indiscriminadamente fuego real contra quienes allí se hallaban en el ruedo y los tendidos. Siete personas fueron heridas de bala, cinco de ellas graves o muy graves; más de doscientas heridas. ¿Quién dio aquella orden? ¿Quienes la ejecutaron?

Judicialmente, la cosa empezó mal. Ya de entrada, el fiscal encargado del caso, en contra de la opinión de los abogados de la acusación, lo troceó en tres sumarios diferentes. El primero, 151/78, por la muerte de Germán Rodríguez; el segundo, 81/80, por los heridos en las calles y el tercero, 82/80, por los sucesos de la plaza de toros. Por si fuera poco, en el procedimiento intervinieron siete jueces de Instrucción y seis magistrados de la Audiencia. La patata caliente no la quería nadie.

La solicitud y práctica de pruebas fueron boicoteados notoria y reiteradamente por el Ministerio del Interior (identificación de policías, remisión de documentación, no aportación de pruebas...). La acusación particular no pudo interrogar siquiera a un solo policía. Tampoco fueron consideradas la práctica de importantes pruebas solicitadas: testimonios directos de la actuación policial en la plaza de toros, calles y lugar donde mató a Germán, documentación policial, material obtenido por la Comisión de Investigación de las Peñas, etc.

Las calificaciones hechas por las distintas acusaciones particulares hablaban de sedición, asesinato, homicidio, lesiones y daños derivados de lo anterior. Se pedía el procesamiento, por existir indicios claros de criminalidad, del Comisario Jefe, Miguel García; del Comandante Fernando Avila García, de los capitanes César Jiménez Cacho y Vicente Lafuente Ramírez y de los tenientes Benito Pérez Vázquez y Francisco Abellán Vicente. Pero ningún policía llegó siquiera a sentarse en el banquillo. Ninguna pena, de ningún tipo, fue impuesta. Ninguna responsabilidad fue reconocida.

Al final, las distintas sentencias fueron un calco de la versión policial. Allí, a lo más, se habían producido unos malos entendimientos en las órdenes dadas y, en cualquier caso, era imposible individualizar las posibles extralimitaciones habidas. En el caso de la muerte de Germán, a mayor desvergüenza, ni siquiera se reconoció que la policía hubiera estado presente en el lugar. El Tribunal Constitucional confirmaría luego todo lo tramitado ante los Juzgados y Audiencia de Pamplona.

Las sentencias, en definitiva, ya llevaba tiempo hechas. Martín Villa, ministro de Interior en aquellas fechas, había declarado tras los sucesos: “Lo nuestro serán errores. Lo otro son crímenes”. En definitiva, los jueces no hicieron nada más que poner su firma a lo anterior.



Xabier Idoate

INPUNITATEARI STOP!

“Izenik gabeko balak,
zigorrik gabeko errudunak,
justiziarik gabeko herria”

Hauxe da Fertxo Izquierdo bertako poeta eta lagunak 1978ko gertaeren inguruan idatzi zuen poemaren parte bat. Haren gainean Fermin Valencia abeslariak ondu zuen uztailaren 8 orotan, 13:00etan, Germanen hilarri ondoan kantatzen den abestia.

Izenik gabeko balak. Germanena ez zen berezko heriotza izan. Hau da, ez zen hil, erail zuten. Berea ez zen heriotza izan, krimena baizik, Estatuaren krimena. Kakoa sakatu zuen poliziaz eta hura akuilatu zuen ofizialaz gain, sanferminetako faena haren lehenbiziko zezen hiltzaileak zeuden: Rubio komisarioa, Avila komandantea, Llano gobernari zibila, “Tirad con todas las energías y lo más fuerte que podáis! ¡No os importe matar!” agindu zuen agintari poliziala, Martin Villa Barne ministroa.

Zigorrik gabeko errudunak. Hori guztia epaitu zuten epaileak ez ziren nonbait plazan egon eta ez omen zuten deus ikusi karriketan gertatutakoaz. Ez zuten lasterka egin beharrik izan, ezta ezkutatu ere. Ez ziren odoletan zikindu zaurituren bat eramaten. Egun hartan, dirudienez, etxean gelditu ziren epai burutsuak prestatzen. Beranduago, faenari ekitea tokatu zitzaienean, jauzitxoak egin zituzten gertaeren gainetik, ba-

lazko zaurituen gainetik, German erailaren gainetik eta uko egin zioten ikusteari, galdekatzeari, ikertzeari, arrazonatzeari. Erailketa hura bekaturik gabe sortua izan zen. Inolako aitatasunik ez zitzaion errekonozitu. Ez zen errudunik seinalatu.

Justiziarik gabeko herria. Aspertu arte erran dugu. Germani tokatu zitzaion bala hiltzaile hura, baina edonori gerta zitzaiokeen. Iruñeko herri osoa, eta haratago, Nafarroa osoa, izan ziren erasoa jaso zutenak. Hiru egun beranduago, Donostian, Poliziak Joseba Barandiaran hil zuen sanferminetako gertaeren aurka manifestatzen ari zen bitartean. Horrek Euskal Herri osora zabaldu zuen errepresio polizial kriminala. Inork ere ez zuen haren heriotzaz deus ordaindu.

Ondoren, gertaerak desagertu ziren mundu ofizialetik. Historia liburuek eta hezkuntza curriculumek ez dakite deus hartaz, ez dute erantzunik ematen. Sanferminetako eskuorri eta bideoek entzierroetako harrapatutakoez eta hildakoez hitz egiten dute, baina ez dute deus aipatzen urte hartako adarkada polizial hiltzaileez. Horrekin batera, hamarkadetan erakundeen aldetik izan den isilarazteko lana erabat bidegabea izan da. Eta ez hori bakarrik. Yolanda Barcina alkatesaren (UPN) agintaldian, hori erailketaren aztarnak ezabatzen saiatu zen, Germanen hilarria bahituta. Herritarren borrokak, hil luzetan gauzatuak, bere tokian berriro paratzea lortu zuen. Alabaina, inpunitateak begi bistan uzten du hura izan zela, zalantzarik gabe, Iruñeak azken 40 urteotan jaso duen erasorik handiena.

Argentinan eta Txilen, Pinochet eta Viledaren diktadurek sorrarazitako genozidioaren 40 urte iraganik, erail eta desagertuen ama, senide eta alderdikideen burugogortasunak lortu du erailketa haien hamaika erantzule aulkian esertzea. Jeneral, almirante, kapitan andana eta mota guztietako poliziak epaituak eta kondenatuak izan dira. Hilobi aunitz ireki dira eta haietako bakoitzarekin beste horrenbeste egia ezkutatu atera dira argitara. Nork erran dezake, bada, hemen, Iruñean, gure eskaerak ametsezko edo utopikoak direla?

Gure taldea, Sanfermines 78 Gogoan! Herri ekimena, agertu da frankismoaren erailketen aurkako kereila argentinarrean eta, orobat, aktiboki parte hartu du gure Udalak kausa berberarengatik aurkeztu duen horretan. Horregatik, itxaropena dugu hark, Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak hartu duten bide positiboan sakontzen jarraituko dutela, 1978ko sanferminetako gertaerei buruzko memoria historikoa berreskuratzeko.

Berandu baino lehen Egia, Justizia eta Ordaina izanen dira. 2018. urtea bihurgunea izanen da Estatuaren erailketa harekiko inpunitatea deuseztatzeko. Konbentziturik gaude.



María Goñi

¡STOP IMPUNIDAD!

"Izenik gabeko balak,
zigorrik gabeko errudunak,
justiziarik gabeko herria"
(Balas sin nombre, culpables sin castigo, pueblo sin justicia)

Esto es parte del poema escrito por nuestro poeta local y amigo, Fertxo Izquierdo, sobre los sucesos de sanfermines de 1978. Sobre él compuso posteriormente el cantautor Fermín Valencia la canción que todos los 8 de julio, a las 13,00 horas, se canta junto a la "estela de Germán"

Izenik gabeko balak. Germán murió de muerte matada. Es decir, no murió, sino que lo mataron. Lo suyo no fue muerte, sino crimen, crimen de Estado. Más allá del policía que apretó el gatillo y el oficial que lo azuzó, estaban los primeros espadas de aquella faena sanferminera: el comisario Rubio, el comandante Ávila, el gobernador civil Llano, el mando policial que ordenó "Tirad con todas las energías y lo más fuerte que podáis! ¡No os importe matar!", el ministro de Interior, Martín Villa.

Zigorrik gabeko errudunak. Los jueces que juzgaron todo aquello no debieron estar en la plaza ni ver nada de lo que pasó en la ca-

lle. No tuvieron que correr ni esconderse. No se mancharon de sangre trasladando a ningún herido. Aquel día debieron quedarse en casa redactando sesudas sentencias. Más tarde, cuando les tocó entrar en faena, dieron saltitos por encima de los hechos, de los heridos de bala, de un Germán asesinado, negándose a ver, a interrogar, a investigar, a razonar. Sus sentencias fueron inmaculadas. Aquel crimen fue concebido sin pecado. Ninguna paternidad le fue reconocida. Ningún culpable fue señalado.

Justiziarik gabeko herria. Lo hemos dicho hasta la saciedad. A Germán le tocó aquella bala asesina, pero le podía haber tocado a cualquier otra persona. Fue el pueblo entero de Iruñea el agredido y, más allá de él, toda Navarra. La muerte a manos de la Policía de Joseba Barandiarán, tres días después, en Donostia, cuando se manifestaba en protesta por los sucesos de sanfermines, extendió al conjunto de Euskal Herria la criminal represión policial. Tampoco nadie pagó por su muerte.

Después los hechos desaparecieron del mundo oficial. Los libros de historia y currículum educativos no saben ni contestan sobre aquello. Los folletos y vídeos sobre sanfermines hablan de las cogidas y muertes en los encierros, pero nada dicen las mortales cornadas policiales de aquel año. Junto a ello, el silenciamiento institucional durante décadas ha clamado al cielo. No solo eso. Bajo la alcaldía de Yolanda Barcina (UPN) ésta intentó borrar las huellas del crimen secuestrando la estela de Germán. Largos meses de protesta ciudadana lograron reponerla en su lugar, pero la impunidad ha seguido socavando la evidencia de lo que, sin duda alguna, ha sido la mayor agresión padecida por Iruñea en los últimos 40 años.

Pasados también 40 años del genocidio perpetrado en Argentina y Chile por las dictaduras de Pinochet y Vileda, la cabezonería de madres, familiares y camaradas de los asesinados y desaparecidas ha conseguido sentar en el banquillo a cientos de responsables de aquellos crímenes. Decenas de generales, almirantes, capitanes y policías de todas clases han sido juzgados y condenados. Muchas tumbas han sido abiertas y con cada una de ellas se han aireado otras tantas verdades ocultas. ¿Quién puede decir pues que aquí, en Iruñea, nuestras peticiones son ilusorias o utópicas?

Nuestro grupo, Sanfermines 78 Gogoan!, se ha personado en la querella argentina seguida contra los crímenes del franquismo y ha participado activamente también en la presentada por nuestro Ayuntamiento por esta misma causa. Estamos esperanzados por ello que tanto él, como el Gobierno de Navarra y el Parlamento Foral sigan profundizando en la positiva vía que han iniciado de recuperación de la memoria histórica referida a los sucesos de sanfermines de 1978.


Más pronto que tarde habrá Verdad, Justicia y Reparación. El año 2018 marcará el punto de inflexión que permitirá poner fin a la impunidad para con aquel crimen de Estado. Estamos convencidos de ello.



Mintxo Ilundain

OROIMENA

LA MEMORIA



Patxi Araujo

40 URTE MEMORIA BIZIRIK ATXIKITZEN

1979an Iruñeak Udal berria zuen, urte horretako apirileko udal hauteskundeetatik sortua. PSOEk zuen alkatetza. Halere, urte horretako besta programan egindako agur ofizialean ez zen inolako aipurik egin aurreko urtean gertatutakoaz. Irudi zuen 1978ko Sanferminetan bizi izandako basakeria ez zela existitu edo hartaz mintzatzea kalterako izanen zela. Udalak, hori bai, "denok egindako akatsen aurrean adiskidetzera" eta "herra guztiak –holakorik baldin badago– uxatzera eta gure lurreko melodiak denak besarkaturik kantatzera" deitzen zuen.

Bizkitartean, peñek, alderdi politikoek, zaurituek eta Germanen senideek izapidetu zituzten gertaera haiengatiko kereila kriminalak. Udalak isiltasun eta ahanzturaren alde eginiko apustuaren aurrean, pertsona, kolektibo eta alderdi aunitzek Egia, Justizia eta Ordaina galdatzen jarraitu zuten.

Askorentzat, besta edan, kantatu eta dantza egitea baino gehiago da. 1973an, Motor Ibericako langileen borrokarekin elkartasuna adierazteko Iruñeko eta Nafarroako greba orokorra eta gero, peñek, uztailaren 9an, gatazka hartan atxilotutakoen askatasuna galdatzea erabaki zuten eta, zezenketa bukaturik, plazan gelditu ziren isiltasun osoan. 1976an, askatasun politiko eta amnistiaren eskabideak gure herrietako bestak janzten zituen bitartean, uztailaren 9an, Santurtzin, bertatik bertara botatako ti-

roek Normi Mentxaka erail zuten manifestazio bat bukatu ondoren. Hurrengo egunean, Iruñean, manifestazio jendetsua egin zen hura salatzeko eta peña batzuek beren ibilbidea aldatzea hautatu zuten. Egunez eguneko errealitatea bestatik erauztea ezina izateaz gain, zentzugabekeria ere bada.

1978tik azken hauteskundeetara, Iruñeko udalek eta Nafarroako Gobernuek (UPN, CDN, PSN) ez dituzte aintzat hartu 1978ko sanferminetarako Egia, Justizia eta Ordaina eskakizunak. Ez bestetan, ez bestetatik kanpo, ez da pausorik eman norabide horretan erakundeen aldetik. Horregatik Germanen lagunak, LKIko alderdikide izandakoak, Peñak eta talde sozial batzuk izan gara gure hiriaren historiako erailketa hura isiltasunak ezaba zezan eragozteko lana gure egin dugunak.

Urtez urte, uztailaren 8 orotan, Sanfermines 78 Gogoan! ekimenak eguerdian deituriko elkarretaratzeak gogorarazi ditu gertaera haiek eta haiei buruzko inpunitatea. Ekitaldiak txarangak, abestiak, dantzariak, bertsolariak... izan ditu lagun. Arratsaldean, zezenketa bukatu ondoan, peñak, isiltasunean eta pankartak bildurik, abiatu dira German erail zuten tokira, bertan oroimen ekitaldi berezkoa egiteko. Sekulan ez da huts egin hitzordu horietan.

2005ean, Yolanda Barcina UPNko alkatesak, parking bateko obrak aitzakiatzat harturik, hilarria bahitu zuen (lehendabiziko biak suntsituak izanak ziren, mazo kolpez eta lehergailuz) eta biltegi ezkutu batean giltzatu zuen. Orduz geroztik, ia bi urtetan barna, mobilizazio soziala etengabea izan zen, berriz paratzeko eskatuz. Orduan ere errepresio poliziala eta borra ukaldiak izan ziren. Hamaika talde sozialek hartu zuten parte elkarretaratzeetan hilarria berriro bere tokian paratzea galdatuz: feministak, sindikatuak, gazteak, euskaltzaleak, dantzariak, bertsolariak, abesbatzak, raperoak, txistulariak, rock taldeak... harik eta, oposizioko taldeen sostenguarekin ere, 2007ko azaroan UPNko Udalak hilarria berriro paratu behar izan zuen arte.

Era berean, ekimenak erakundeen eremura eraman dira, udalaren aitzinean batik bat. Azpimarratzekoa Sanfermines 78 Gogoan! herri ekimenak 2008an, peñetako 50 lehendakarik sostengaturik, aurkeztu zuena Egiaren Batzorde bat sortzeko. Errefusatua izan zen.

Urte hartan bertan, Zuzenbideko 70 profesional baino gehiagok Nafarroako Auzitegi Nagusiari, Foru Parlamentuari, Arartekoari eta Udalari apelazioa egin zieten gertaera haiei buruzko ikerketa batzordeak sor zitezen. Eskaeraren arrazoia sinplea zen: “Justizia, kasu honetan, itsua izateaz gain, gorra, mutua eta paralitikoa ere izan da”, zioten. Erantzuna, dena den, berriro ere isiltasuna eta “larga” aldatua izan zen.

Azken urteotan, memoria mugimendua zabaldu eta indarturik, eta gai honen inguruko kontzientzia soziala handiturik, uztailaren 8ko elkarretaratzeak handituz joan dira, horren babesean. Azken bi urteotan Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren ordezkaritza handia bertaratzeak ere Egia, Justizia eta Ordaina galdatzea indartzeko balio izan du.

Berrogeigarren urtemuga honetan, gure helburuek Egiaren Batzorde bat sortzea bilatzen dute berriro, bai eta ondokoa ere: zezen plazaren hurbil monumentu bat paratzea, gertaera haien oroigarri, gertaera haietako biktima guztiak aitortzeko ekitaldi ofizial bat egitea, eta Gobernu zentralari Estatuak eraso hartan izan zuen erantzukizuna bere gain hartzeko galdatzea eta, hortaz, Iruñeko herritar guztiei barkamena eskatzea. Erran gabe doa, konbentziturik gaude horren guztiaren bitartez 1978ko sanferminetako gertaerentzat Egia, Justizia eta Ordaina eskakizuna, horrenbeste aldiz baztertua, gauzatzen ahalko dugula.



José Miguel Corral

40 AÑOS MANTENIENDO VIVA LA MEMORIA

En el saludo oficial hecho en el programa de fiestas de 1979 (desde las elecciones municipales de abril de ese año se contaba con un nuevo Ayuntamiento) no hubo ni una sola mención a lo ocurrido un año antes. Parecía como si la brutalidad vivida en los sanfermines de 1978 no hubiera existido o fuera contraproducente hablar de ella. El saludo, eso sí, llamaba a la "reconciliación ante los errores cometidos por todos" y a "desplazar rencores –si los hay– y cantar a coro abrazados melodías de nuestra tierra".

Mientras esto ocurría, las Peñas, partidos políticos, heridos y familiares de Germán tramitaban querellas criminales por aquellos hechos. Frente a la apuesta municipal por el silencio y el olvido, muchas personas, colectivos y partidos seguían reclamando Verdad, Justicia y Reparación.

Para muchos, la fiesta es algo más que beber, cantar y bailar. En 1973, tras la huelga general de Pamplona y Navarra en solidaridad con la lucha de los trabajadores de Motor Ibérica, las Peñas decidieron el día 9 de julio reclamar la libertad de todos los detenidos en aquel conflicto. Tras finalizar la corrida, se quedaron en la plaza en silencio total. En 1976, mientras la reivindicación de libertades políticas y amnistía vestía las fiestas de nuestros pueblos, el día 9 de julio, en Santurtzi, Normi Mentxaka fue asesinada por disparos a bocajarro tras finalizar una manifestación.

En Pamplona, al día siguiente, en protesta por aquello, hubo una numerosa manifestación y algunas Peñas optaron por cambiar su recorrido. Extirpar de la fiesta la realidad del día a día es algo imposible y un sinsentido.

Desde 1978 hasta las últimas elecciones, los distintos ayuntamientos de Pamplona y gobiernos de Navarra (UPN, CDN, PSN) han hecho caso omiso a las exigencias de Verdad, Justicia y Reparación para los sanfermines de 1978. Ni en fiestas, ni fuera de ellas, se ha avanzado institucionalmente en esta dirección. Por eso hemos sido las amistades y ex-compañeros de LKI de Germán, las Peñas sanfermineras y distintos colectivos sociales quienes hemos tenido que asumir el trabajo de impedir que el silencio borrara aquel crimen de la historia de nuestra ciudad.

Año tras año, todos los 8 de julio, una concentración convocada al mediodía por Sanfermines 78 Gogoan! ha recordado aquellos hechos y la impunidad sobre los mismos. Txarangas, cantautores, joteras, dantzaris, coros, bertsolaris... han acompañado el acto. Por la tarde, tras la finalización de la corrida, las Peñas, saliendo en silencio y con las pancartas recogidas, se dirigen hasta el lugar donde asesinaron a Germán para realizar allí su propio acto de recuerdo. Nunca se ha fallado a estas citas.

En 2005, Yolanda Barcina, alcaldesa de UPN, con la excusa de las obras de un parking, secuestró la estela (las 2 primeras habían sido destrozadas a mazazos y voladas con explosivos) y la encerró en un secreto almacén. Desde entonces, durante casi dos años, la movilización social fue permanente exigiendo su reposición. Hubo también represión policial y porrazos. Decenas de colectivos sociales participaron en las concentraciones reivindicando la reposición de la estela: feministas, sindicales, juveniles, euskaltzales, dantzaris, bertsolaris, corales, raperos, txistularis, grupos de rock... hasta que, en noviembre de 2007, gracias también al apoyo de los grupos de oposición, el Ayuntamiento de UPN tuvo que reponer la estela.

Las iniciativas también se han llevado al terreno institucional, sobre todo ante el Ayuntamiento. A destacar la que presentó Sanfermines 78 Gogoan!, en 2008, apoyada por 50 presidentes/as de Peñas sanfermineras exigiendo la creación de una Comisión de la Verdad, que fue rechazada.

Ese mismo año, más de 70 profesionales del Derecho apelaron al Tribunal Superior de Justicia de Navarra, Parlamento Foral, Defensor del Pueblo y Ayuntamiento a fin de crearse Comisiones de Investigación sobre aquellos hechos. La razón de la petición era simple: “La justicia en este caso no sólo ha sido ciega, sino también sorda, muda y paralítica”, afirmaban. La respuesta, sin embargo, fue de nuevo el silencio y la larga cambiada.

En los últimos años, al amparo de la extensión y fortalecimiento del movimiento memorialista y del aumento de conciencia social en relación a este tema, las concentraciones del 8 de julio han ido en aumento. La presencia en estos dos últimos años de una importante representación del Ayuntamiento de Pamplona y Gobierno de Navarra ha contribuido también a fortalecer esta exigencia de Verdad, Justicia y Reparación.

En este cuarenta aniversario, nuestros objetivos buscan de nuevo la creación de una Comisión de la Verdad, así como la colocación de un Monumento en recuerdo de aquellos hechos que se ubique en las cercanías de la Plaza de Toros, la realización de una Acto oficial de Reconocimiento a todas las víctimas de aquellos sucesos y la exigencia al Gobierno Central a fin de que asuma la responsabilidad del Estado en aquella agresión y la petición consiguiente de perdón a toda la ciudadanía de Pamplona.

Ni que decir tiene que estamos convencidos de que podremos materializar a través de ello las exigencias tantas veces postergadas de Verdad, Justicia y Reparación para los sucesos de Sanfermines de 1978.

HILARRI BATEN HISTORIA

“Bella ciao” kantu italiar famatuan lore bat aipatzen da, borrokan eroritako partisano baten hilobi ondoan dagoena. Eta erraten dutenaren arabera, hortik pasatzen zen jendeak askatasunaren loretzat hartzen zuen.

Gisa berean, Germán Rodriguez erail zuten tokiaren ondoan hilarri bat loratu zen eta Iruñeko jendeak, hortik pasatzen denean, badaki hura dela uztailaren 8 batean zapuztu nahi izan zuten askatasunaren lorea.

1979ko udaberrian, Germanen adiskide, lagun eta kamaraden talde batek harrizko hilarri bat paratu zuen hil zuten tokian. Lehendabiziko lorea izan zen. Aurki moztu zuten. Inoiz ikerturik izan ez diren ezezagun batzuek mazo kolpez suntsitu zuten.

Geroago, bigarrena paratu zen. Ordukoa brontzezkoa zen. Horrekin batera, tokia apaindu zen mosaiko eder batekin, ibaiko harribilekin egina. Hilarria mazo kolpeen kontra babestua zegoen, ez ordea, bonben kontra. Beste ezezagun batzuek lehertu zuten, oinarrian lehergailu bat jarrita.

“Zuek hausten duzuen bezainbeste alditan, berriro paratuko dugu”, erran zuen haren koadrilak. Eta hirugarrena paratu zen, aurrekoa bezala brontzezkoa, baina barnebetea, bonben kontra babestua. Eta ondorengo petardo eta eraso guztiei eutsi zien.

2005ean, Yolanda Barcina UPNko alkatesak, parking baten obrak aitzakiatzat jarrita, hilarria bahitu eta ezkutuko biltegi batean giltzaperatu zuen. Orduz geroztik, batez ere obrak bukatutakoan, zenbait kolektibo sozial hilero bildu ziren hilarria egon zen tokian berriro paratzeko galdatuz. Udalean, oposizioko taldeek gauza bera galdatu zuten.

2007ko uztailaren 8an, urtero toki horretan egiten den elkarretaratzean, laugarren bat paratu zen, harrizkoa. Ordu gutxi iraun zuen. Gau hartan bertan, aurrez pentsaturik eta maltzurkeriaz, alkatesak kentzeko agindu zuen.

Baina birjartzeko galdatzeak jarraitu zuen eta horrela, udalaren aldeko erabaki batzuk lortu ondoren, 2007ko azaroan, erretiratu zutenetik bi urte eta erdi iraganik, brontzezko hilarria bere tokira itzuli zen.

Orduz geroztik, Germanen hirugarren hilarria, bosgarrena ere dena, erail zuten tokian dago. Udal berriak 2016an paratutako plaka berriak honela dio: “Germán Rodriguez Saizen oroimenez. Poliziak tiroz hil zuen, 1978ko uztailaren 8an”.

Eta noiznahi, edozein egunetan, “Germanen hilarriaren” ondoan lore edo lore sorta anonimoren bat ikus daitezke, askatasunaz mintzatzen eta 1978ko sanferminetako gertaerentzat Egia, Justizia eta Ordaina galdatzen jarraitzen dutenak.

HISTORIA DE UNA ESTELA

En la popular canción italiana “Bella ciao” se hace referencia a una flor sita junto a la tumba de un partisano caído en la pelea. Y se afirma que la gente que por allí pasaba la reconocía como la flor de la libertad.

Igualmente, junto al lugar en el que asesinaron a Germán Rodríguez floreció una estela y la gente de Iruñea, cuando pasa por allí, sabe que la misma es la flor de una libertad que pretendieron truncar un 8 de julio.

En la primavera de 1979, un grupo de amigas, compañeros y camaradas de Germán colocó en el lugar donde murió, una estela de piedra. Fue la primera flor. Pronto la cortaron. Desconocidos nunca investigados la destrozaron a mazazos.

Después se colocó una segunda. Esta vez era de bronce. Se ornamentó de paso el lugar con un bonito mosaico hecho con cantos rodados del río. La estela era prueba de mazazos... pero no de bombas. Nuevos desconocidos la reventaron colocando en su base un explosivo.

“Tantas veces como la rompáis la volveremos a colocar”, dijo su cuadrilla. Y se puso la tercera, de bronce como la anterior, pero maciza, a prueba de bombas. Y aguantó ya todos los petardos y ataques posteriores.


En 2005, Yolanda Barcina, alcaldesa de UPN, con la excusa de las obras de un parking, secuestró la estela y la encerró en un secreto almacén. Desde entonces, sobre todo tras concluir las obras, decenas de colectivos sociales se concentraron mensualmente en el lugar reclamando su reposición. En el Ayuntamiento, los grupos de la oposición exigieron lo mismo.

Mientras, el 8 de julio de 2007, durante la concentración que anualmente allí se realiza, se colocó una cuarta, de piedra. Duró solo unas horas. Esa misma noche, con alevosía y nocturnidad, la alcaldesa ordenó su retirada.

Pero la exigencia para su reparación prosiguió y así, tras lograrse distintos acuerdos municipales favorables a ello, en noviembre de 2007, dos años y medio después de ser retirada, la estela de bronce volvió a su lugar.

Desde entonces, la tercera estela de Germán, que también es la quinta, permanece en el lugar donde le asesinaron. En la nueva placa, puesta en 2016 por el nuevo Ayuntamiento, se afirma: “En memoria de Germán Rodríguez Saiz, muerto por disparo de la Policía el 8 de julio de 1978”.

Y cualquier día se puede ver junto a “la estela de Germán”, alguna flor o pequeños ramos anónimos que siguen hablando de libertad y reclamando Verdad, Justicia y Reparación para los sucesos de Sanfermines de 1978.



Pedro Osés

AGIRIAK

DOCUMENTOS

IRUÑEA HIRIKO BATZORDE IKERTZAILEA

(Iruñeko batzorde ikertzaileak emandako komunikatua, 1978ko uztaialaren 11an)

Partaideak:

- Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura
- EAJ eta PSOEko nafar parlamentariak
- Alderdi politikoak
- Sindikatuak
- Auzo elkarteetako koordinadora
- Herritar erakundeak
- Ikastolak
- Gazte eta emakumeen erakundeak
- Lanbide entitateak
- Foru kontseilariak

Honako hauen babes espresarekin:
- Chiqui Benegas eta Juan Mª Bandrés, Euskal Kontseilu Orokorraren partaideak

Iritzi publikoari ondoko agiria eman du ezagutzera:

La Comisión Investigadora de la Ciudad de Pamplona, a raíz de los trágicos acontecimientos iniciados el pasado día 8 de julio, desean informar a la opinión pública de las medidas tomadas para la realización de su labor.

Pensamos que la intervención de la policía en la Plaza de Toros el día 8 no es un hecho casual. Antes al contrario, es premeditado y que se encuentra en la línea de las provocaciones fascistas en que repretidas ocasiones vienen sucediéndose en todo el Estado Español (Vitoria, Montejurra, Málaga, Tenerife). Lo cual pone de manifiesto la tolerancia del gobierno hacia una parte de los mandos de las FOP (Fuerzas de Orden Público) y de otros sectores del Estado claramente fascistas. El Gobierno, lejos de adoptar medidas contra ellos, lo tolera y en la práctica los protege. Con ello, no solo no se chocaban las fuerzas naturales de la involución, sino que se facilitan.

Para concluir con el sector fascista inmerso en el aparato del Estado, es de todo punto necesaria la movilización masiva, firme y responsable de todo el pueblo. Llamamos a realizar cuantas acciones convoquen por dicha comisión.

[ondoren aipatzen dira Batzordeak bere egin behar duen eginkizuna, haren lan eremuak, fabrika bateko langileengandik jasotako dirua eta horren helburua]

Finalmente, esta Comisión mantiene la postura anteriormente hecha pública en exigencia de:

- Retirada de las FOP del casco urbano de Pamplona, y salida de la ciudad de las llamadas Fuerzas Especiales.

- Dimisión del Gobernador Civil de Navarra y del Ministro del Interior.

Iruñean, 1978ko uztailaren 11n

COMISIÓN INVESTIGADORA DE LA CIUDAD DE PAMPLONA

(Comunicado de la comisión investigadora de Iruñea, emitido el 11 de julio de 1978)

Compuesta por:
- El Pleno del Ayuntamiento de Pamplona
- Parlamentarios navarros del PNV y PSOE
- Partidos políticos
- Centrales sindicales
- Coordinadora de AAVV
- Entidades ciudadanas
- Ikastolas
- Organizaciones juveniles y de la mujer
- Entidades profesionales
- Consejeros Forales

Y que cuenta con el apoyo expreso de:
- Chiqui Benegas y Juan Mª Bandrés, miembros del Consejo General Vasco

Ha dado a conocer el siguiente Comunicado a la opinión pública:

La Comisión Investigadora de la Ciudad de Pamplona, a raíz de los trágicos acontecimientos iniciados el pasado día 8 de julio, desean informar a la opinión pública de las medidas tomadas para la realización de su labor.

Pensamos que la intervención de la policía en la Plaza de Toros el día 8 no es un hecho casual. Antes al contrario, es premeditado y que se encuentra en la línea de las provocaciones fascistas en que repretidas ocasiones vienen sucediéndose en todo el Estado Español (Vitoria, Montejurra, Málaga, Tenerife). Lo cual pone de manifiesto la tolerancia del gobierno hacia una parte de los mandos de las FOP (Fuerzas de Orden Público) y de otros sectores del Estado claramente fascistas. El Gobierno, lejos de adoptar medidas contra ellos, lo tolera y en la práctica los protege. Con ello, no solo no se chocaban las fuerzas naturales de la involución, sino que se facilitan.

Para concluir con el sector fascista inmerso en el aparato del Estado, es de todo punto necesaria la movilización masiva, firme y responsable de todo el pueblo. Llamamos a realizar cuantas acciones convoquen por dicha comisión.

[a continuación se hace referencia a la función a asumir por la Comisión, sus diferentes áreas de trabajo, el dinero recibido de los trabajadores de una fábrica y su destino]

Finalmente, esta Comisión mantiene la postura anteriormente hecha pública en exigencia de:

- Retirada de las FOP del casco urbano de Pamplona, y salida de la ciudad de las llamadas Fuerzas Especiales.
- Dimisión del Gobernador Civil de Navarra y del Ministro del Interior.

Pamplona, 11 de julio de 1978

PEÑEN BATZORDEAK 1978KO SANFERMINETAN EGINDAKO AGIRIAK

(Iruñeko Peñen Batzorde Ikertzaileak 1978ko abuztuan prestatu eta argitaratu zuen «San Fermín 78. Así fue» dosierretik aterata)

8KO GERTAEREN BALORAZIOA

Uztailaren 9ko goizaldeko ordu bietan, karriketan zehar istilu eta karga polizialek irauten zuten bitartean, Iruñeko Peñen Batzordeak ondoko agiri hau eman zuten ezagutzera:

"Ante los lamentables hechos ocurridos en Pamplona hoy día 8, la Comisión de Peñas comunica, condena y exige;

1) Condena la actuación criminal de las mal llamadas Fuerzas de Orden Público.
2) Condena al Gobernador Civil de Navarra pidiendo y exigiendo su dimisión, así como la del Ministro del Interior.
3) Exigimos la inmediata retirada de las llamadas Fuerzas de Orden Público de la ciudad.
4) Exigimos responsabilidad civil y criminal ante los distintos hechos.

Lamentamos la divulgación parcial e incorrecta de medios de comunicación nacionales y locales.

Comunicamos que hasta que todos estos puntos no se cumplan suspenderemos todas las actividades de las Peñas en estos Sanfermines y pedimos a todos los ciudadanos que se unan a esta decisión para una mejor convivencia".

BESTAK BERTAN BEHERA UZTEA

Aurreko egunetan Gobernari Zibilarekin izandako bilera batzuen ondoren, Peñen Batzordeak, **11ko goizaldean**, agiri hau argitaratu zuen:

"La Comisión de Peñas, reunida en Permanente desde las 19,00 horas, y tras su comunicado de las 21,15, en el cual exigía antes de las doce del día de hoy:

Primero.- La retirada de las Fuerzas de Orden Público de la Ciudad.
Segundo.- La dimisión del Gobernador Civil.
Tercero.- La libertad de los detenidos por los últimos acontecimientos

Dado que no se han cumplido estas exigencias, ni siquiera en diálogo personal con el Gobernador, hemos recurrido a Órganos Superiores, entre ellos el Palacio de la Moncloa, el Ministerio del Interior, Diputados del Estado Español y Parlamentarios navarros; no habiendo recogido ningún resultado de todas estas gestiones y siendo las Peñas las más interesadas en seguir estas fiestas, por lo que para nosotros representan tras un año de preparación, esta Comisión declara que dan por terminadas sus actividades en estas fiestas de San Fermín 1978, suponiendo para las doce Peñas una gran repercusión económica.

Los lamentables hechos ocurridos el día 8, en plenas fiestas de San Fermín, hechos, comentados, denunciados por distintos entes políticos, sociales y ciudadanos y por el respecto humano que nos merece la muerte de nuestro compañero Germán, todas estas circunstancias no nos hacen posible el ambiente festivo y de alegría que siempre nos han caracterizado.

Denunciamos a las fuerzas públicas y a quienes las ordena, por la continuación de la represión en las calles y plazas, demostrando que es una provocación a todo un pueblo y no como se ha querido significar en distintos medios a unos intereses políticos.

Al pueblo de Pamplona, pedimos serenidad y que pasen de las provocaciones de los enemigos del pueblo.

La Comisión de Peñas respetará las decisiones que se adopten en cuanto a la continuación de las fiestas, no participando activamente en ningún acto de los programados.

Pedimos a todos los ciudadanos que se adhieran a nuestra postura y lamentamos que nuestras fiestas de San Fermín nos las hayan tornado en sangre e insistimos en invitar a la serenidad y paz ciudadana".

11ko 21:00etan, herritarren bizikidetza lehengoratzeko ezintasuna zela eta, Iruñeko Udalak bestak ofizialki bertan behera uztea erabaki zuen.

COMUNICADOS DE LA COMISIÓN DE PEÑAS DURANTE LOS SANFERMINES DE 1978

(Extraídos del dossier «San Fermín 78. Así fue», confeccionado y editado en agosto de 1978 por la Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona)

VALORACIÓN DE LOS HECHOS DEL DÍA 8

A las **dos de la madrugada del día 9 de julio**, mientras todavía seguían los incidentes y cargas policiales en las calles, la Comisión de Peñas de Pamplona dio a conocer el siguiente comunicado:

"Ante los lamentables hechos ocurridos en Pamplona hoy día 8, la Comisión de Peñas comunica, condena y exige;

> *1) Condena la actuación criminal de las mal llamadas Fuerzas de Orden Público.*
> *2) Condena al Gobernador Civil de Navarra pidiendo y exigiendo su dimisión, así como la del Ministro del Interior.*
> *3) Exigimos la inmediata retirada de las llamadas Fuerzas de Orden Público de la ciudad.*
> *4) Exigimos responsabilidad civil y criminal ante los distintos hechos.*

Lamentamos la divulgación parcial e incorrecta de medios de comunicación nacionales y locales.

Comunicamos que hasta que todos estos puntos no se cumplan suspenderemos todas las actividades de las Peñas en estos Sanfermines y pedimos a todos los ciudadanos que se unan a esta decisión para una mejor convivencia".

SUSPENSIÓN DE LAS FIESTAS

Tras varias reuniones realizadas con el Gobernador Civil durante los días anteriores, la Comisión de Peñas dio a conocer durante la **madrugada del día 11** el siguiente comunicado:

"La Comisión de Peñas, reunida en Permanente desde las 19,00 horas, y tras su comunicado de las 21,15, en el cual exigía antes de las doce del día de hoy:

Primero.- La retirada de las Fuerzas de Orden Público de la Ciudad.
Segundo.- La dimisión del Gobernador Civil.
Tercero.- La libertad de los detenidos por los últimos acontecimientos

Dado que no se han cumplido estas exigencias, ni siquiera en diálogo personal con el Gobernador, hemos recurrido a Órganos Superiores, entre ellos el Palacio de la Moncloa, el Ministerio del Interior, Diputados del Estado Español y Parlamentarios navarros; no habiendo recogido ningún resultado de todas estas gestiones y siendo las Peñas las más interesadas en seguir estas fiestas, por lo que para nosotros representan tras un año de preparación, esta Comisión declara que dan por terminadas sus actividades en estas fiestas de San Fermín 1978, suponiendo para las doce Peñas una gran repercusión económica.

Los lamentables hechos ocurridos el día 8, en plenas fiestas de San Fermín, hechos, comentados, denunciados por distintos entes políticos, sociales y ciudadanos y por el respecto humano que nos merece la muerte de nuestro compañero Germán, todas estas circunstancias no nos hacen posible el ambiente festivo y de alegría que siempre nos han caracterizado.

Denunciamos a las fuerzas públicas y a quienes las ordena, por la continuación de la represión en las calles y plazas, demostrando que es una provocación a todo un pueblo y no como se ha querido significar en distintos medios a unos intereses políticos.

Al pueblo de Pamplona, pedimos serenidad y que pasen de las provocaciones de los enemigos del pueblo.

La Comisión de Peñas respetará las decisiones que se adopten en cuanto a la continuación de las fiestas, no participando activamente en ningún acto de los programados.

Pedimos a todos los ciudadanos que se adhieran a nuestra postura y lamentamos que nuestras fiestas de San Fermín nos las hayan tornado en sangre e insistimos en invitar a la serenidad y paz ciudadana".

A las **21:00 horas de ese día 11**, ante la imposibilidad de restablecer la convivencia ciudadana, el Ayuntamiento de Pamplona decidió suspender oficialmente las fiestas.

“NO OS IMPORTE MATAR”

(Iruñeko Peñen Batzorde Ikertzaileak 1978ko abuztuan prestatu eta argitaratu zuen «San Fermín 78. Así fue» dosierretik ateratako transkripzioa)

Igandea zen. Uztailaren hamar eta hamaikaren arteko gaua. Egun hartan, goizean, Germani lur eman zitzaion. Hogeita hamar mila lagunek “Polizia hiltzailea!” oihu egin zuten, ahotsik gabe gelditu arte.

Bi egun iragan ziren arren benetako tiroak bota zituztenetik, bereizi gabe, zezen plazan, jendez beteriko harmailen aurka, bai eta karriketan ere, han tiro parrasta hiltzaileek German akatu baitzuten, ez omen zitzaien hura aski iruditu.

Irrati-amateur batek bildu zituen poliziaren irratitik hamarraren gauaz egindako mezu eta arrapostu batzuk:

“- (Ahots asaldatu bat) ‘Vulcano2’, dar la vuelta a la plaza. Preparar todas las bocachas ¡y tirar con todas las energías! Y lo más fuerte que podáis. No os importe matar. Adelante Cambio.

- Adelante ‘J 1’ para ‘Vulcano 2’. Cambio.

-Enterado. Cambio.

- 208, dame el enterado.

- Enterado. Cambio.

- (Ahots geldi eta barea) Vamos a ver ‘Vulcano 2’. Refrena el vocabulario. Habla lo estrictamente imprescindible. Y no te pases. Cambio.

- (Arestiko ahots asaldatu bera) “‘Vulcano 2’ ¡Y repeler lo que nos están haciendo estos doscientos o trescientos hijos de la gran puta que están aquí. ¡Repelerlos con los procedimientos que tenéis!. Adelante 207. Cambio.

- ‘J 1’ a ‘Vulcano 2’ (berriro ahots geldia) Contenga el vocabulario y limítese a como se ordena”

“NO OS IMPORTE MATAR”

(Transcripción tomada del dosier «San Fermín 78. así fue», confeccionado y editado en agosto de 1978 por la Comisión Investigadora de las Peñas de Mozos de Pamplona)

Era domingo. La noche entre el diez y el once de julio. Ese día, por la mañana, había sido el entierro de Germán. Treinta mil personas habían gritado “¡Policía asesina!” hasta enronquecer.

A pesar de que ya habían pasado dos días desde que se había disparado fuego real e indiscriminado en la plaza de toros, contra los tendidos llenos de gente, y también en las calles, donde ráfagas asesinas acabaron con la vida de Germán, aquello no les había parecido suficiente.

Un radioaficionado recogió varios mensajes y réplicas realizadas esa noche del día diez desde la emisora policial:

> *“- (Una voz alterada) ‘Vulcano2’, dar la vuelta a la plaza. Preparar todas las bocachas ¡y tirar con todas las energías! Y lo más fuerte que podáis. No os importe matar. Adelante Cambio.*
>
> *- Adelante ‘J 1’ para ‘Vulcano 2’. Cambio.*
>
> *- Enterado. Cambio.*
>
> *- 208, dame el enterado.*
>
> *- Enterado. Cambio.*
>
> *- (Voz pausada y serena) Vamos a ver ‘Vulcano 2’. Refrena el vocabulario. Habla lo estrictamente imprescindible. Y no te pases. Cambio.*
>
> *- (La misma voz alterada de antes) ‘Vulcano 2’ ¡Y repeler lo que nos están haciendo estos doscientos o trescientos hijos de la gran puta que están aquí. ¡Repelerlos con los procedimientos que tenéis!. Adelante 207. Cambio.*
>
> *- ‘J 1’ a ‘Vulcano 2’ (de nuevo la voz pausada) Contenga el vocabulario y limítese a como se ordena”*


SF
78
gogoan!